

eus
Jakin 260

herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2024

Joana Idiart Davant
elkarrizketa

AINIZE MADARIAGA MUTHULAR

GAIAK

Zer da zaintza? Imajinazio ariketa bat

ALAITZ URIARTE GOIKOETXEA

MAIDER BARAÑANO URIBARRI

EGUNEN GURPILEAN

SHU OTERO

JOANES IGEREKI SANTAMARIA

CIRA CRESPO

Jakin^{•eus}260

herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2024



JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

ERREDAKZIOA

Haritz Azurmendi • Oihana Iguaran

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

HISTORIA BIZIA

11 Joana Idiart Davanti elkarrizketa Ainize Madariaga Muthular

Joana Idiart Davant kultur eragilearen bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzaroa Amendüzen; gerra garaia eta alemanekin harremanak; Pariseko egonaldia: Pariseko Euskal Etxearen sorreran eta bilakae-ran parte hartzea; Euskal Herrira itzulita, Euskaldun Gazteria elkarteko koordinatzaile eta *Gazte* aldizkariaren zuzentzaile gisa egindako lana; emazteen arteko elkartasunaren eta abortatzeko eskubidearen aldeko borroka eta lana; Emazteek Dio-te kooperatibaren eta Hazparneko Ezkia Ikastolaren sorreran parte hartzea...

GAIAK

73 Zer da zaintza? Imajinazio ariketa bat
Alaitz Uriarte Goikoetxea
Maider Barañano Uribarri

Zestoako Zaintza Ekosistema osatzen duten agenteen diskurtsoak aztertzen dira, zehazki zaintzaren inguruko diskurtso eta iruditeriak, definizio partekatuetara dimentsio eta begirada ezberdinetatik iristeko ezinbestekotasuna nabarmenduz.

EGUNEN GURPILEAN

91 Kultura
Shu Otero

98 Glokalia
Joanes Igeregi Santamaria

105 Historia
Cira Crespo

KONTRAZALA Dom Campistron

Interview with Joana Idiart Davant

The journalist Ainize Madariaga Muthular conducts a wide-ranging interview with the cultural activist Joana Idiart Davant, in a new issue of the *Living History* series. The interview takes an extensive look back over Idiart Davant's life and career: her childhood in Amenduze; the Second World War and relationship with the Germans; her stay in Paris –she took part in the setting up and development of the Euskal Etxea (Basque House) in Paris–; her return to the Basque Country and her work as coordinator of the Euskaldun Gazteria association and as copy editor for the *Gazte* journal; her struggle and work in favour of solidarity among women and the right to abort; her participation in setting up the Emazteek Diote cooperative and the Ikastola Ezkia school in Hazparne... **Ainize Madariaga Muthular**

What is care? An exercise in imagination

The sociologists Alaitz Uriarte Goikoetxea and Maider Barañano Uribarri analyse the discourse existing among agents taking part in the Zestoa Care Ecosystem; specifically, the discourse and ideas revolving around care, underscoring the need to seek shared definitions based on different dimensions and standpoints. **Alaitz Uriarte Goikoetxea • Maider Barañano Uribarri**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, globalization and history matters. This section draws on various specialists: Shu Otero, Joanes Igeregi Santamaria and Cira Crespo. **Various authors**

Ez hala pentsatua zegoelako, ezpada kasualitatez, Josu Martinezen *Bizkarsoro* filmak eta Ainize Madariagak Joana Idiart Davanti egindako elkarriketa luze mamitsuak garai bertsuan ikusi dute argia. Lehena ikusi eta bigarrena irakurri, eta balirudike Bizkarsoroko istorioetan kontatzen den azken mende beteko euskararen kontrako jazarpena eta agertzen diren pertsonaia hainbat Idiartek berak bizi eta gorpuztu izan dituela. Bizkarsoroko haurra, gaztea, ama Idiart dira. Bata fikzioa da eta bestea benetan gertatua: biak errealtate beraren hari eta haragi. Idiart, 92 urteko amandüztarra, behar baino gutxiago ezagutzen dugun emaztea da, eta *Historia bizia* saileko elkarriketa guztiekin gertatzen den bezala, haren bizitzaren historia Euskal Herriaren historiaren ispilu da. Gerren artean hazi eta hezia, zurien familian sortua eta gorriekin borrokan aritua, mundu zahar eta berriaren arteko lekuko eta eragile izan da.

Ekimen askoren lehen aldian egon da Idiart, aitzindarietako bat: abertzaletasunean, ikastolen sorreran, euskararen auzian edo emakumeen aldeko borrokan bide berriak irekitzen. Beti taldean eta beti elkartasun izpiritu batekin. Pariseko Euskal Etxea, Euskaldun Gazteria, *Gazte* aldizkaria, emazteen arteko elkartasuna eta abor-tatzeko eskubidearen aldeko lana, Emazteek Diote kooperatiba, Hazparneko Ezkia Ikastola... Idiart Pariseko Euskal Etxean irudikatu du Dom Campistronek kontrazalean, karta jokoan, neskame joan-dako beste euskaldunekin.

Zer da zaintza? Gaur-gaurko galdera dute abiapuntu Alaitz Uriarte eta Maider Barañano soziologoek. Zertaz ari gara zaintzaz ari garenean? Eta zaintzaren gainean pentsatzen dugunak zer ondorio ditu gure praktketan? Iruditeriak aztertu dituzte, iruditeriek errealtate jakinak eta aritzeko modu jakinak sortzen dituztelako. Galderak erantzuteko, errealtatean bermatu dituzte oinak, eta Zestoako zaintza zerbitzuen eta horien eraldaketarako egitasmoaren gaine-ko ikerketa oinarri hartuta eta zaintza ekosistemaren garapena hel-buru dutela egin dute landa-lana.

Shu Otero filosofoa ere zaintzaz ari da *Egunen gurpilean* saileko bere lehen artikuluan –ongi etorri gure artera!–. Zaintzaz adina mi-

naz ari da Otero, artikulua benetan bikainean. Pertsonala politikoa dela dioen Kate Milletten maximari jarraituz, nitik gura egiten du minaren diagnosia Oterok. Nondik bestela hitz egin daiteke sinesgarri izateko eta eraldaketarako bideak jorratzen hasteko. Norberaren mina eta gizartearen minak: zer forma hartzen dute eta nola egin diezaiekegu aurre? Horra galdera.

Joanes Igeregi ere gizartearen 'minez' ari da, mugikortasunaren auzia begi zoliz begiratuz eta erronka ekosozialaren bidean jarritz. Eta Cira Crespok igande arratsaldeak, Marilyn Monroe, Terenci Moix eta Txillardegi lotura itxuraz inprobableetan lotu ditu.

HISTORIA BIZIA

1 1 Joana Idiart Davanti elkarrizketa
Ainize Madariaga Muthular

Joana Idiart Davanti elkarrizketa

Ainize Madariaga Muthular

Kazetaria

Zuberoako Ürrustoi-Larrabilen Aizagarreko gerezitzea lilitan da, beharko zukeelarik lotan neguko koloreetan, marroi-orlegien eskalan.

Elkarrizketa hau burutzeko bigarren hitzorduan, nehork gomitatu ez zituen zimitzak izan genituen sarkin, sabaian han-hemen.

Konprenitzekoa da Joana Idiart Davant –1932an Nafarroa Behereko Amendüzen jaioa– arranguratzen duela aldaketa klimatikoak, ondokoei zer mundu utziko diegun, ikusirik epe laburrean gertatu diren kanbioak: bera sasoian sasoikoak hazi izan duelarik.

Garapen teknologikoaren lehenbiziko lerroko lekukoa izan da Idiart, halaber horrek ekarri dituen aldaketa sozial guziena. Etxaldeko lanak eskuz eta kabalen laguntzaz egitetik, erabateko mekanizazioaren bilakaera ikusi du; etxe barnean, nola kanpoan.

Ettxetiar izatetik, etxezain izaterat pasa ziren etxekoak, iraultza handia. Elektrika, garbigailu, bizikleta, irrati eta urik gabeko etxeetan bizi ziren garaian, euskara hutsezkoa zen jendea, non ez zen eskolan, frantsesaren moxorroa bortxaz beztitu behar izaten baitzuten. Orain izan daitekeenaren kontrakoa.

Aita gerlan ibilia zen, osabak preso atxikiak, alemanak herrian ikusi ditu, demarkazio-mugak eragotzi zien lehengusua-ren ehorzketarat joatea, gau batez agertu zitzairen soldadu arrotz handi hura etxean... gerlak erakutsi dizkio bere bisaia Joanari.

Alta, uste zuelarik sua itzalia zela, desolatua da oraingo guduken berri hartzearekin: «Baitakigu zer den», erran du buru-makur.

Amendüze utzirik, urraketa eragin zion Pariserat sehi joan behar izateak; uroski han zuela ahizpa. Baina Idiarrek marka ederra utzi dio Parisi ere: Euskal Etxearen sortzaileetariko bat izan baita. Han juntatzen ziren bera bezalako ehunka gazte euskaldun desterratu, herriminari aitzin eginenez.

Handik etxeratu zelarik, Xarritonen hegalpean aritu zen lanean Baionan, Euskaldun Gazteria elkartearen koordinatzaile gisa. *Gazte* aldizkarirat igortzen zizkieten idatziak zuzentzen zituen, Parisen hartu baitzuen astia bere buruaren alfabetatzeko. Aljeriako gerla garaian, soldadu joan ziren euskaldunek igortzen zituzten gutunak zabaltzen ere aritu zen lanean, hango berri ukan zezan herriak.

Emazteen arteko lagungoa bere baitan darama Idiarrek, sehi izan zen garaitik hasiz. Berantago, alta, lehentasuna bilakatu zen borroka hori, hain xuxen ere, Hazparnerat (Lapurdi) joan zelarik bizitzerat. Hartan, bertzeak bertze, sekulako lana egin zuen tabuak birrintzeko: sexualitatea armairutik ilkiaraziz, konparazione. Horregatik, ikastetxez ikastetxe ibili izan da kontrazepzioen berri emateko, haietaz nehor ez zelarik mintzo. Abortatu behar zuen jendea bideratzeko sarea muntatu zuten, ahal bezain ongi laguntzeko, horretarako formakuntzak egin eta gero. Garaiko langabezia tasa altua apalarazi nahian, buru-belarri aritu da emazteak ahalduntzen, kooperatiba bat altxatzeraino.

Honezkero berrogeita hamar urte dituen Ezkia Ikastolaren sortzaileetarikoa ere bada Idiart, bospaseiek abiatu zuten proiektuak ehun bat ikasle dituelarik oraingo egunean.

Balio horien guzrien garraiatzaileak bere burua aurkeztu zuen herriko etxeko hauteskunde batzuen kariatarat.

Ez du usu baliatzen singularreko lehen pertsona, ez; guak moldatu du eta gutasunean du gehien gozatu. Horregatik faltan duke karrikako bizia, elkar gurutzatzeko astia hartzea.

Jauzi hori ere ikusi baitu: jendarte honetan nikeria nagusitzen.

Joana Idiart Davant gure historiaren itzal handiko borrokalaria da, isilik oro ematen duen horietarikoa.

Zein da gogoratzen duzun lehen oroitzapena?

Herriko bestak ziren eta zaku-lasterketa bazen. Ene osaba bat ari zen, lursagar zaku batean sarturik... Hura dut, ene irudiko, oroitzapen urrunena, gerla aitzinekoa, 1938an. Haurrideen sortzez ere oroitzapen naiz; nitarik landa, bazen mutiko bat, bi urteren buruan sortu zena, horrena ez. Baina ondokoarena bai, gogoan dut; 1936an. Ni 1932an sortua naiz.

Nola oroitzen duzu sortze hori?

Emagina ikusirik oroitzen naiz, baliza ttipi batekin, eta anaia han. Emozio anitz heldu zaizkit, badakizu, zortzi baginen, baina haur bakoitzaren jitea besta bat izan da guretzako. Ikusten dut emagina, baina izena ez zait heldu. Zortzien sortzeetan izan duzu, azkenekoan ere, 1945ean, gerlaren urrentzean.

Nolakoa zen emagina?

Emazte goxoa zen; halarik ere, bazuen autoritatea. Lasaia zen izugarri. Heldu zen sortegunean, biharamunean eta gero beste behin urrunxeago. Ama egoten zen zortzi-bederatzi

egunez ohean, orain ez dira hainbeste egoten. Orduan izugarri lotsa zen odol galtzeaz. Aitak lehen emaztea galdu zuen albuminuriak joa. Horregatik, geroztik, aita traumatizatua zen eta haur guzien jitean ez zuen jaten; hain zen lotsa! Luze joaten bazen sustut. Anitz markatu nau horrek. Orduan ez baitzen pilularik.

Aldaketa izugarria da.

Emazteak preeklanpsiak jota hiltzen ziren orduan, ez beti araz medikua hor zenuelarik. Aitaren lehen emazte hura matahami egiten ari zen etxean, pentsatzen dut astearte inautea zela, eta bat-batean erori eta hil zen. Pentsatzen dut 1927an edo 1928an izanen zela. Usu emazteei gertatzen zitzaien esperantzetan zirelarik.

Geroztik egiten ziren analisiak hilabete guzietz, guk ere hala egin dugu.

Ama ohean zen bitartean, nola antolatzen zineten etxean?

Auzo bat heldu zen. Amiñi bat bortitza zen, ez genuen bizi-ki maite. Behin, ohean ezarri nahi gintuen zortzi orenetan edo hola, arratsarekin, eta gu luzakor ginen, beti estakuruka horrat ez joateko. Orduan, nitik landa heldu den anaiak erran zion: «Hola baitzara, orduan ohean pixa egingen dut!» [kur-kur-kur]. Irri egin zuen emazteak.

Ez zenutena halako larderiako usaiarik?

Aita-amak ez genituen batere holakoak, ez: biziki goxoak ziren. Hark bortxaz behar zuen autoritate poxi bat, amaz okupatzen zen, artak egin behar zizkion... Emazte biziki baliota zen. Alarguntsa zen, bere bi haur eta ahizparen bi alaba altxatu zituen, etxeetan ibiliz lanean... Bere bizia, alta, gaizki finitu du: bere burua hil du zahartu ondoan. Pentsatzen dut hark egin dituen lan horiei guziei...

Nola ezagutu zuten elkar zuen aita-amak?

Ama sukaldari zen gure etxondoko bisean biseko etxe burgesean, hain xuxen ere, gure etxaldearen jabeen etxean. Bazituzten bost etxetiar, eta haietan gu beraz, bisean bis. Mutila bazen, eta beste bi neskame, ari zirenak garbiketan, buketen egiten... Ezin pentsatuzkoa da orain!

Ez zen urik etxeetan. Xuriketak egiteko, buketa egiten zelarik, behar zituzten behiak eta karrosa, xuritzeko tokirat eramateko. Bestalde, udako idorrean bospaseiehun metro baziren usaia uraren xerka joateko, dena patarrez. Gainera, amak zango bat bazuen gaizki, poliomielitisa ukan baitzuen.

Jauberria, zuen etxondoa.

Bazituzten hemezortzi hektarea lur. Haietarik hiru etxearekin erosi zituen ene ondotikako anaiak, eta etxea osoki berritu. Alta, anaia supituki zendu baitzen, ondasuna saldu behar izan genuen, denek baikenuen guhauren etxea. Bizian badira holako gauza tristeak. Gaitzeko pena dut, zeren eta amak eta anaiak behar izan baitzuten lanean ari izan horren pagatzeko eta berriz egiteko.

Amak zango bat laburragoa zuen?

Bai, zango bat bazuen laburragoa, flakoa. Zapatak eginarazi behar zituen. Ez zait irudi maingu zenik, baina pufa! Harritzekoa da nola salbatua izan zen, haurtzaroan ukan baitzuen.

Kontatzen zuena frankotan gaitzaren bizipena?

A, bai, frankotan! Eta kontatzen zuen partikularki etxekoek ez zutela pentsatu oskietan, eta berak zernahi sufritzen zuen oskiak ezartzean. Orduan, erretoreak erran zion: «Bon, nik eginaraziko dizkizut zapatak». Ikusten baitzuen nekez ari zela, segurik. Geroztik errazki ibili da eta beti eginarazi ditu.

Nola zen salbatu?

Medikuari esker. Donapaleutik joaten zitzaion, sendatu eta gero ere segitzen zuen bere bisitan. Baina etxekoek dirua mugatua zutenez, erran zioten ez jiteko gehiago.

Minaz oroitzen zena?

Bai, oroitzen zen.

Ettxetiargoa ezagutu duzu. Sekulako aldaketa izan da horretan ere, ez dea hala?

Bai, nekez ukan dute kanbiatze hori: etxetiar izatetik etxezain izaterat. Etxetiarrak uztak partekatu behar zituen jabearekin; aldiz, etxezain zenak alokairu bat pagatzen zuen. Artoak: sei errenkada gureztat eta lau jabeentzat; ogia: erdizka; ardoa ere erdizka... Horiek ziren larrienak. Eta kabalak: urdea eta antzara pare bat eman behar genizkien urtero. Ez dugu sekula arazorik ukan horretan.

Harremanak ez ziratekeen berak jabeekin eta auzoekin, bai?

Ez, ez. Haiei jaun eta andere erraten genien. Besteak izen ttipiez deitzen genituen. Hala ere, harreman gaiztorik ez

«Broussainen emaztea
beti euskaraz ari zen.
Beti erraten zigun: 'Ez
ezazue sekula euskara
ahantz, biziki inportantea
da!'. Pentsatzen nuen:
'Bai, petzeroendako
ontsa da!'

genuen izan haiekin. Haien seme batek zazpi haur zituen eta gurekin jiten ziren jostatzerat; nahiago zuten gurekin egon etxean baino. Haien amak nahi zuen *Monsieur* eta *Mademoiselle* erratea, haur sortu berriei ere! Behin errientsa izan zen gomitaturik Pierre Broussain Hazparneko mera eta Euskaltzaindiko lehenen ekipokoa izanikoaren alaba-

ren ezteietarat –horko seme batekin esposatu baitzen–, eta erran zion: «*Portez-moi les couches de Monsieur*» [Ekariezazkidazu Jaunaren xatarrak]. Ikusten duzu?

Ez zekitena euskaraz?

Hor sortuak zirenek bai, bazekiten. Haatik, Frantziatik jiniko etxeko andereak ez. Gizonak militarrek ziren. Anaia militarra zen ere, koronela, eta 1940ko gerlan hil zen, Verdunen.

Bi seme hil izan dira Vercorsen, makian, 1944an. Zerbait ikusiak dira. Beste biga ere izan dira jeneralak, haiek naturalki hil dira.

Haiek ziren beraz ttipitan zuekin jostatzen zirenak.

Bai. Pierre Broussainen alabaren haurrak ere. Horiek buhameak ziren, gustuan... Belarretan gordetzen ziren xerka heldu zitzaizkielarik! Behin entzun nion amaxiri: «Erraten badizut ilargiak argitzen duela egunez, ez duzu deus erratekorik!», molde gaizkian ari zitzaion, xerka ari izan zen. Debeiatzen zen bera. Broussainen alabaren senarra gerlan ibili zen, eta haurrak gurekin ari ziren jostatzen, gurekin ere eskolan, ez gu baino hobeak.

Haurren artean euskaraz ari zinetena?

Amak biziki ontsa bazekien, Broussainen alabak, Jenofak. Haren emaztea beti euskaraz ari zen, alarguntsa, ez zen bakanztetan baizik heldu. Beti erraten zigun: «Ez ezazue sekula euskara ahantz, biziki inportantea da!». Pentsatzen nuen: «Bai, petzeroendako ontsa da!». Bihotzetik ari zen. Haren alaba, oroitzen naiz, Jenofa, 1932an, aitarekin eta ikurrinarekin joan zen Bilborat lehen Aberri Egunerat. Broussainen emaztea etxe horretakoa zen [Jauberriaren pareko etxekoa], eta haurrak amañirekin jin ziren honat. Alabei euskaraz ari zitzaien, Maialen eta Jenofari. Pentsatzen dut haiekin euskaraz ari ginela... Jenofak erran zigun, gure amaren izena biziki eder zitzaionez, alabari ere izen hori eman ziola: Maider. Saltzen dizut erositako prezioan [kur-kur-kur]!

Zure haurtzaroa nola definituko zenuke?

Herrian kasik denak etxetiar ziren, orduan ez genuen sentitzen pisu hori. Errespetua-eta, bai: elizan baziren holako bi jabe: De Castelbajac eta baratxartearrak. Haiek elizan bazituzten bina kadira, jartzekoa eta belaunikatzekoa, lehen lerroan, bi kadira bazituzten beraz. Jende sinpleak, berriz, bakarra zuen, eta itzultzen zuen. Beti bazen klase diferentzia

hori, beti ikusia genuen, beraz, bitxi bazitzaigun, bai, oroit baikara, baina...

Arrahaurrek ez zuten jakin haien aitañi nor izan zen: Broussain. Haiek sinple ziren.

Nolakoa zen zuen eguneroko bizia?

Eskolarat abiatu gara bost urtetan. Han ene burua ikustea, eta ez mugitu behar... ufa! Adin guzietarikoak baziren han: hamabi urtekoak... Denak gela berean, berrogei bat ginen orotara. Errientsa gure aitaren kusia zen, *Madame* erran behar genion.

Oro frantsesez, ez dea hala?

Bai, oro. Euskaraz ari baginen, «*Je ne parlerai plus basque à l'école*» [Ez naiz gehiago euskaraz mintzatuko eskolan] idatzarazten zigun. Nik paperean banuen eginik, eta beti bera erakusten nion. Baina ohartu zen, orduan arbelean eginarazten hasi zitzaigun, gero ezabatzen zuen. Beraz aldi oro arrahasi behar ginen. Mutikoek ez zekiten frantsesik batere.

Zure ustez zerk zuen ezberdintasun linguistiko hori egiten neska eta mutikoen artean?

Nago ez ote zuten tirarik; laborari izanen baitziren gero, beraz ez zitzaien batere interesatzen. Ez dut ikusi nihauren denboran bihirik *zertifikatua* [hamalau urterekin ikasleei eginarazten zieten eskola-diploma] ateratzen. Errientsak errana, neskak hobeki aritzen ziren, eta hark nahi zuen frantsesez ari gintezen, orduan, ari ginen.

Mutiko horiek, soldadu joan aitzin, galdegin zioten errientsari izkiriartzen erakastea, orduan ikus ezazu zein heinetan ziren! Hala, igandez, meza aitzin joaten ziren izkiriartzen ikas-teko. Etxekoekin gutunezko harremanaren ukaiteko behar zuten, joaten ahal baitziren berdin Pariserat, edo Aljeriarat, edo Alemaniarat, soldadu zerbitzuaren egitera.

BUXERIA FRANTSESAK

Preseski, zuen aitag ezagutu zuen 1914-1918ko gerla.

Eritzen zen aipatzen zuelarik. Hiltzean ere aipatu du. Adin gordinean ez da anitz hortaz mintzatu, baina hil aitzin bai... Azaroaren 11n zuen bere urteko ateraldi bakarra, eta heldu zen amiñi bat alegera. Eta hor dut entzun bere gerlako harremenez zerbait: hiru laguni atxikia zen, bizi guzian hala iraun zuen; elkarren etxean jaten zuten, elkarren agurtzerat joaten ziren... Haietako bat Donapaleu ondoan bizi zen eta arroltzeak ematerat joaten gintzaizkion... Izugarriko adiskidantza zuten. Haietarik bat, Etxeberri, hilarendako utzia zen eta salbatu zuen gure aitag. Domintxaintarra zen. Hirugarrena Thikoipe zen; Maulen diruzain espertoa zen, kasik igande guzietan heldu zitzaigun. Ez zen ber maila: aita etxetiar eta eskola gutikoa baitzen, baina bestea eskola handikoa! Etxeberri zalgurdiz heldu zen!

Aita kolpaturik itzuli zizuen gerlak.

Bai, ez kolpatu handia, baina bai; bala bat bildu zuen azpian, ipurdi pean. Handik ekarri zuen errebolberraz oroit naiz.

Nola oroit zuen gerla?

Buxeria.

Frantsesa ematen zuena?

Poxiño bat. Ez zen eskola zalea... Erriente ez zuten biziki zorrotza... Nola erran? Promenatzerat eramaten zituen ikasleak, ihiziko zakurrei eginarazten zitzaiena, haurrei eginarazteko! Lapinak harrotzen zituzten arto alorretan, gero tiroz hiltzeko [kur-kur-kur]!

Nola izan zen gerlarat joatea?

Gerlarat joan delarik, galdetu zioten: «*Quelle est votre nationalité?*»; hark orduan erantzun zuen: «*Basque*». Alta, ukan zuen

errefera: «*Ça n'existe pas, monsieur. Vous êtes français*» [Zein da zure nazionalitatea? Euskalduna. Ez da halakorik. Frantsesa zara]. Bere buruaz ahalke zen ez jakitean frantsesa zela.

Orduan bilakatu zen frantsesa?

Ez. Pentsatzen dut etsaiak alemanak zirela, bai, baina ez zen frantses nazionalista bilakatu. Euskalduna zen Frantzia handi horretan. Ez zen batere sartzen nazio handi eta ttipi afera horretan. Ez zen nazionalismorik etxean. Gerla denboran, anaia bat bazuen Alemanian preso. Izkiriartzen genion, batzuetan gauza batzuk euskaraz, baina zentsurak ezeztatzen zizkigun. Erran zigun ez gehiago euskaraz izkiriartzeko, bestela ez baitzitzaizkion gutunak heltzen. 1939tik 1945era arte egon zen preso. 1939ko irailean ene hirugarren anaia sortu zen, bosgarren haurridea, eta ama negarrez hasi zen, otto abian baitzen gerlarat. Ottok erran zion: «Kontsola hadi, Maider, kontsola hadi, berehala hemen gaitun». Sei urteren buruan! Eta itzuli zelarik, gure azken haurridea sortu zen: Paxkal. Hala, bere goxaita izan zuen eta haren izena hartu zuen anaiak: Paxkal!

Bi gerlak ikusi zituen aitak.

Bai, ikusi bai, baina bakarra egin. Ottok ere bai.

Zuhaurek ere bizi izan zenuen gerla, Bigarren Mundu Gerla.

Oroït naiz elizako deiaren entzuteaz. Amak orduan zuen jaikitzeke lehen eguna, anaia sortu berria baitzen. Baratzean ginen. Elizako zeinua entzun genuen, mobilizazioa zen. Klase bat altxatzen zuten, sorturtearen arabera. Beraz, aitaren anaia hura, preso egon zena, abiatu zen. Aitak bazuen beste anaia bat: Jakes. Hark Baionan behar izan zuen bere burua presentatu. Edan zuen eta lasterka, lasterka ari izan zen, luzaz, bere erranetan: «Hatsa galdu arte!», eta gero, presentatu zen. Bihotza flako zuela, ez zuten hartu [kur-kur-kur]! Ez zuten enbeiarik, ez, gerlarat joateko!

Zeren defendatzerat?

Puf... Traumatizaturik ziren jadanik Lehen Mundu Gerlarekin...

Gerlak goserik ekarri zuena zuen etxerat?

Goserik ez. Urte erdian zerrikia jaten genuen, eta beste erdian atzarkia, estomaka azkar genuen orduan [kur-kur-kur]!

Hazkurri-kartak banatzen ziztuzten, txokolatea eta azukrea erosi ahal izateko. Baina etxe-koek ez zuten azukrerik hartzen eta txokolatea guretzat uzten ziguten. Kafe arras guti atzematen zen, atxikoria zen gehienik edaten, zeina, nik us-te, bestaldetik kontrabandoan heldu baitzen. Laranja eta horietarik ez zen. Ogia amak egiten zuen, zeren eta salgai zegoen hori beltza baitzen, ezin jana zenbait aldiz. Jendeek erraten zuten okinek zenbait aldiz ogi xuria merkatu beltzean saltzeko egiten zutela...

Garia jotzen zelarik heldu ziren miliziakoak kontatzerat zenbat zaku behar genien eman. Behin ikusi dut: kontatzerat jin zen gizona mozkorrazazi zuten eta zaku andana bat sartu ganerrean [kur-kur-kur]. Han zen zakuen gainean gizona, ez zen gaiztoa.

«Aita ez zen frantses nazionalista bilakatu. Euskalduna zen Frantzia handi horretan. Ez zen batere sartzen nazio handi eta ttipi afera horretan. Ez zen nazionalismorik etxean»

Zerekin mozkorrazazi zuten?

Etxeko ardoarekin, zeren eta ardoa ematen baitzen bizpahirutan ogi jotzean, biziki lan gogorra baitzen. Botila eta basoekin pasatzen ginen lanean ari zirenen artetik.

Orduan, harginak ere ardo botilarekin ari ziren lanean, gogor baitzen. Gari jotzea ere hala-hala, behar baitzen kudentzia atxiki: lehenik behar zen ogia jautsi, tapizean pasatu, lastoa baztertu, metak egin, bihia atera, zakuetan ezarri... Gaitzeko lana zen! Eta hori, hamar-hamabost egunez, etxez

etxe. Mekanikak zahartuak ziren ordukotz. Egurra ere egin behar zen, lurrunaren egiteko. Beraz, behar zen hasi hiru oren lehenago suaren egiten, langileak jin aitzin, mekanika berotzeko. Argia gabe jaikitzen ziren horren egiteko. Pentsa ezazu mekanikaren jabeak lo guti egiten zuela sasoia zelarik, berak baitzuen sua behar zen heinean egiten. Etxez etxe joaten zen idiek mekanika tiraturik. Halako lokomotor bat bezalakoa zen.

Zaila izanagatik, bazuena besta airerik ogi jotzeak?

Gure etxean bai, ez baitzen hala etxe guzietan, iduriz. Erra-ten zuten bazituztela etxe onak, non afari eta bazkari onak partekatzen baitzituzten, eta beste batzuek, gutixeago. Eta non arno ona baitzen ere! Etxe batzuetan ozpina bezala zuten! Jatekoa ere bai; entzun ukan dut etxe batzuetan ahatekia amiñi bat pasatua zela... Ez baitzen orain bezala: orduan ez zen hotzik! Kontserbak egiten ziren eta, tupina bat zabaltzen zenuelarik, behar zen ontsa kukutu urinaz eta doi bat fite jan. Bestela, teputzen zen, nola erran, mardotzen zen eta gustua ez zen hain ona! Hala ere, ez dut sekula entzun nehor horretatik eriturik.

Ukan zenutena etxean alemanik?

Ez zen lekurik etxean. Baratzarte delako jauregi horretan bai bazen gaitzeko andana. Baziren zalditegiak eta han jatekoak metatzen zituzten, eta materiala. Jauregi osoan zeuden, ez baitziren etxeko anderea, mutila eta sehiak baizik. Beste guziak ofizierek okupatuak ziren.

Nola ematen zioten jaten jende horri guziari?

Etxaldeetan behi bat hartzen zuten urtero. Saltzen zenien baina prezio apalean. Aitak zer egiten zuen? Behi zahar bat erosten zuen hor gaindi eta hura saltzen, etxeko behi onik ez galtzeko! Alorretan ere sartzen zituzten zaldiak, galdegin gabe, eta sekula ez zuten hesten xeila, gero kabalak sartzten ziren... Belarra ere hartzen zuten... Gure bazkak hartzen

zituzten, bai. Dena den, ez ziren SSak, jendeekin ez zuten harremanik, baina ez zen ere arazorik. Zenbait aldiz, heldu ziren soldaduak arroltze eske, eta xuriketak egiten ahal genizkien... Baina pagatuz. Jaten zituzten ogi gogorrak. Kontatuko dizut istorio bat, polita baita. Behin, heldu da ofizier bat, barrukirat doa eta behi bat hautatzen du, zeinak aratxea ukan berria baitu. Alimaleko errapea zuen eta alemanak hura nahi zuen. Aita ezin esplikatzuz ari zen nola erran txahala ukan berria zuela... Eta: «*Mais, vous ne voyez pas ce errape?*». [Ez duzua ikusten horren errapea?]. Alemana hiztegia ari zen xerkan eta xerkan *errape*. Hondarrean, behia utzi zuen, pentsatzen baitzuen *errape* eritasun handi bat zela [kur-kur-kur]! Umorea bazen, beti!

Holakoak izan daitezela eritasun handi guziak!

Bai, hori da! Behi zuri eder bat zen. Lehen aratxea zuen. Eta gu, irriz, gorderik: «Ba, xerkatzen ahal du hiztegia *errape*!» [kur-kur-kur]. Gero joan zen. Izan ziren bai SSak ere, baina guti. Basak bezala ziren, ez zen harremanik batere-batere. Baina ez zuen iraun.

Izan zena bortizkeriarik garai hartan, emazteekiko-edo bertze?

Ez dut sekula entzun. Aldiz, emazteak haiekin joaten, bai. Joan ginen behin bidexka batean, bezpera batean, usaian hartzen ez genuena. Bero zen. Harritu ginen, zeren neska batzuk ez baitziren agertu bezperetan. Pasatu ginen, beraz, erdi alorretik, erdi oihanetik, eta hor ziren aleman batzuk bakoitza bere neskarekin! Beste behin, orgabidean, ontsa ezagutzen nuen neska bat ofizier batekin zegoen. Errateko da herri ttipietan ere ber gauzak gertatzen zirela. Ez zen istoriorik izan. Bat, badakit, ezkondu zela fite, lotsa baitzen, eta gaixoak bildu du senar katastrofe bat. Bere bizian pagatu du. Emazte biziki goxoa, ederra... Harreman zenbait ukan zukeen alemanekin, beldurtu eta fite esposatu zen. Ez zuten salatu.

Demarkazio-muga hortxe zenuten. Markatu zintuen kusi ttipiaren heriotzak.

Bai, orgatik erori zen. Sarrikotan, haurra jarri zen orgaren pertikaren gainean, eta handik erori eta hil zen. Behiekin zen gizonak ez zuen ikusi han zela eta erori zen. Amikuze

«Eskolan euskaraz egiten
genuen eta atzemanak
ginelarik egin behar zena
egiten genuen.
Ez nuen herrarik, ez.
Egin ahala eskapu»

okupaturiko alderdia zen; Zuberoa, aldiz, okupatu gabekoa. Donapaleun zen muga. Beraz, aita-amak ez ziren joan ahal izan ehorzketarat. Elkar ikusi zuten ondoko egun batez, Behaskaneko demarkazio-muga, ene tanta alde batetik, eta gure ama bestetik, eta alemanak erdian.

Zer adineko haurra zen?

Bospasei urtekoa. Izugarria izan zen. Hemen ehortzia da, Sarrikotan. Ezagutu nuen kusi hori, bi aldeetatik haurrideak biziki atxikiak baitziren; harremanak bazituzten biziki. Urte guziez egiten zuten bazkari bat etxondoan, Landibarren, hangoa baitzen, sortzez, gure ama.

1936ko gerla ez dugu aipatu. Baduzua horretaz oroitzapenik?

Bakarrik bazela Gabadin gizon bat, Rikardo izena zuena, zeina mutil baitzen hor. Behin eskola aitzinetik pasatu zen eta errientsak esplikatu zigun 1936ko Espainiako gerlatik –hala deitzen baitzioten orduan– eskapatu zela, Francok irabazi baitzuen. Ez dut entzun gehiago besterik.

Gerlako haurrak aterpetu zituzten, bertzeak bertze, Donibane Garaziko Zitadelan, bai ere Jatsun Lapurdin. Bazenutena horren berririk?

Ez, ez zen Internetik edo sare sozialik orduan [kur kur kur]!

ESKOLA ANTI EUSKARA

Eskolarat itzul gaitezen. Zer zen xuxen idatzarazten zizutena euskaraz mintzo bazinen?

«*Je ne parlerai plus basque en classe*» [Ez naiz gehiago euskaraz mintzatuko klasean], orainaldian, geroaldian eta iraganean...
«*Je, tu, il, nous, vous, ils*» [ni, hi, hura, gu, zuek, haiek]...

Bazenutena eraztunik, makilarik, *anti*-rik edo elkar salatzeko gisa horretako tresnarik?

Holakorik ez genuen, aire hartzean behar genuen idazketa hori egin. Errientsak entzuten zionari zion eginarazten.

Behar zenutena elkar salatu?

Ez.

Errientsa euskalduna zenuten.

A, bai! Aitaren kusia zen!

Zigor horrek eraginik ukan zuena zeure baitan?

Ez, ez nau lotsarazi. Ez, ez, euskaraz egiten genuen eta atzemana ginelarik egin behar zena egiten genuen. Ez nuen herrarik, ez. Egin ahala eskapu. Ez gintuen beti atzematen! Ez usu!

Haurrideekin eskolan frantsesez aritzeak ez zuena etxeko lengoaia aldarazi?

Ez, ez, batere ez. Ez naiz oroit etxekoekin frantsesez ari izanik. Hori bai, frantximant bat heldu zelarik etxerat, orduan bai, handixeago ginelarik.

Etxekoek ez zituztena arbuiatzen eskolako zigorrak?

Ez zuten jakiten ere. Eskolako gauzak eskolan egoten ziren.

Ikasle ona zinen.

Ikasle txarretan hoberena [kur-kur-kur]!

Laket zenuena?

Biziki! Gure etxean denek maite izan genuen eskola. Ondoan ginen, alde batetik nagusiak ziren, eta bestetik eskola zen, eta gure etxea erdian. Ez zen pisu eskolara joatea, etxean bazkaltzen genuen.

Urrunetik heldu ziren horietatik heldu zena bakarren bat zuen etxerat bazkaltzerat?

Ez, ostatuan jaten zuten. «Jauberrikoak ari dira ontsa eskolan, baina zuek ez duzue fitsik egiten», leporatu zieten kilometro bat, edo bat eta erdi, ibili behar zuten batzuei. Hala ihardetsi zieten orduan: «Bai, baina Jauberrikoek ez dute bide egite-rik!». Eta egia zen! Behar baitzuten goizik partitu, eta adina ikusi behar da...

Etxean zertan laguntzen zenuen?

Nik barneko lanak egiten nituen gehiago, eta ahizpak kanpo-koak. Paxkal anaia ttipiaz okupatu naiz, nik nuen kanbiatzen, promenatzen... Hartaz biziki okupatu naiz. Eta gero, egur egiten, arto sartzan, belarketan..., lan anitz egiten genuen. Gure pausatzeko denbora zen etxekoek siesta egiten zutelarik, orduan ez genuen azantzik egin behar. Uraren xerka ere abian ginen, garaian bagenuen ponpa; baina udan idortzen zelarik, ez zen urik, orduan ur xerka joan behar ginen brokekin.

Zenbatetan egunean?

Ez naiz oroit, baina egunean behin segur, gehiago ez dakit. Biga joaten baginen, bagenituen bina ontzi. Guk edatekoa genuen ekartzen, kafe edo zoparen egitekoa; besteek barri-
kak betetzen zituzten edangu batean, beste gauzendako ura hangoa zen, ez zen edangarria.

Euri uretik zen?

Ez, iturri batetik, beti korritzen zen. Gure lan handia ere zen behiak edanaraztea.

Nola egiten zenuten behien edanarazteko?

Multzoan hartzen genituen pentzean eta bazen ontzi bat, aska bat: ura alde batetik sartzen zen eta bestetik ateratzen. Eta behiak horrat ekartzen genituen. Problema zen beste behi tropa batzuk atzematen bagenituen... Behien bereiztea... puf! Beren artean aharran hasten baziren... ai! Ez zuten elkar soportatzen! Uf!

Kasu horretan, zer egin behar da?

Makilen laguntzaz gureak korriarazten genituen ahal bezain fite bereizteko, baina ez zen aise.

Aska hura denendako baitzen?

Bai, denendako, inguruko lauzpabost-sei etxaldeendako.

Zenbatero eramaten zenituzten kabalak?

Oroitu naiz egun guzietan, ez naiz oroitu arratsetan eginik.

Urrun zena etxetik?

Bai, franko urrun eta hein bat patar. Ama han ibiltzen zen xuriketen egiteko. Gero ni ere ibili naiz horretan hamalau urtetik harat, eta ber urburua zen. Eta gero mahats biltzen eta hola; horiek lan goxoak dira, hastean bederen!

Auzolanean egiten zenutena?

Ez, mahats biltzea ez. Bazen gari jotzea, arto xuritzea, eta nehor baldin bazen ezinean edo eri bazen, hori ikusi dut bai, elkar laguntzen bazen.

Gero, urde hiltzea ere bai: zerria hiltzeko behar baitziren hiruzpalau lagun, hiruk atxiki eta batek hil. Oroitzapena dut gehiago horien ikustea: bazen aitaren anaia bat herrian be-rean, hura heldu zen beti, gero kusi bat... Besterik bazenez, ez dakit. Urde hiltze arratsetan, urte guzietan, herriko gazteak heldu ziren kartetan aritzerat. Ez dakit tripota egitean parte hartzen zutenen, beti afaria bazuten eta berant ari ziren. Ja-terat zer ematen zuten...? Nago ez zenez tripota.

«Behin agitu zaigu,
misioak baziren, eta
gu ari ginen pilotan
mutikoekin... Eta
misionesta jin zitzaigun
erratera ez zela ontsa
hola mutikoekin pilotan
aritzea... Baina berdin
segitu genuen!»

Bazen pasaia etxean.

Bai. Udako bakantzetan aita-
ren haurrideak heldu ziren,
Baionatik, Bordeletik... Ez
zuten deus ere eginen: ez ja-
tekorik, ez lagungorik batere,
batere-batere! Egonen ziren
mahaian jarririk... Salbu bat:
heldu zen lurraren iraultzerat
artoarendako; hura bai lanean
ari zela, baina bakarra zen. Eta
amak egin behar jatekoa de-
nendako... Dena den, ez dut
sekula pleinitzen entzun. Zi-

nez bakantzetarat heldu ziren horiek, ez zuten koilara bat
altxatuko, ez ere baxerarik eginen... Deus ere!

Luzaz egoten zirena?

Bazuten etxe bat ttantta-osabek, eta han ere ibiltzen ziren...
Beraz ez ziren hain luzaz egoten, egun zenbaitez... Ber kar-
tierrekoak ziren, etxe guzietan pasaia egiten zuten. Ez dut
sekula ama entzun deusen erraten, baina geroztik ari naiz,
hala ere... eta urte guziez!

Berantago, haur eta gazte arteko adin horretan, haizu ze- nutena plazan dantzan aritzea?

Guk bai. Apez zahar bat baitzen, biziki zabala, baina beste
anitz herritan ez zen haizu.

Bidart apeza?

Bai. Baina behin agitu zaigu, hala ere, misioak baziren, eta
gu ari ginen pilotan mutikoekin... Eta misionesta jin zitzaigun
erratera ez zela ontsa hola mutikoekin pilotan aritzea...
Baina berdin segitu genuen! Badakit herri batzuetan bazirela
Mariaren Alabak, eta haiek zina egin behar zuten ez zirela
mutikoekin dantzan ariko.

Zuek berdin-berdin, herriko bestetan...

Bai. Gero, gerla denbora zen, eta gerla denboran ez zen bestarik. Baina hortik aitzina bai.

Zer dantzatzen zenuten?

Dantza-jauziak ikasi ditugu.

Nola ikasi zenuten?

Mutiko batek bazekizkien eta hark erakatsi zizkigun.

Doinua ere?

Bai, berak dena egiten zuen: kantuz eta aldi berean pausoak erakusten. Gero bazen tango, *marche*, baltsa... Ez dakit besterik... A, bai, runba ere bai.

Musika nola entzuten zenuten?

Orduan bestetan bazen orkestra ttipi bat edo bi soinulari... Edo bakarrik fonografoa. Eta gero familia batek bazituen bi soinu-tresneria, beti matxura! Orduan ikusten zenituen beti bi hariren ezartzen eta berriz partitzen... Donapaleutik. Bazituzten musika tresnak eta saltzen ezartzen zituzten. Besta egunetan ekartzen zuten fonografoa. Bi anaia bizkiak ziren, herriz herri ibiltzen ziren tresna horrekin, gerla finitu-eta. Gerla denboran ez zen posible, ez. Oroit naiz lehen bestak gerlatik landa, presonerrak sarturik eta beren emaztegaiak atzemanik... Bazan alegeratasun bat! Gauez izan zen, hegoa zen... Jende horiek oro hain uros ikustea... Oroit naiz horretaz.

MILLER GERTAKARIA

Gerlako gau hotz batez ere ongi oroituko zara, ez dea hala?

Gertakari bat gertatu zen. 1944ko gau batez, bortan jotzen dute gure etxean, arratseko zortziak edo bederatziak zitezkeen, martxoaren 5ean, hain justu ere.

Ahizpa eta biok joaten gara ikustera. Eta nehor ere ez. Izugarri hotz zen gau hartan, martxoa bazen ere. Eta berriz jotzen entzuten dugu, berriz ikusterat joan, eta hor, bortan, alimaleko gizon bat! Ez euskaraz, ez frantsesez, keinuka ari zitzaigun! Aita lotsatu zen: «Zer da hau?», garai hartan baitziren makikoak... Ez genekien mesfidatu behar ginenez... *Terroristak* deitzen zituzten.

Orduan, aitak erraten digu: «Zoazte anaia Jakesen xerka ostaturat». Igandea zen. Orduan, ahizpak eta biok ottori esplikatu genion gizon bitxi bat bagenuela etxean, hau eta hura. Hala, etxerat ekartzen ditu bere lagun guziak! Hoge bat bederen! Hasteko, sukalde guzia betea zen! Orduan mintzatu baina deus ere ez konprenitzen. Biarnoko Ezkoze herrian hegazkin amerikar bati DCAk [Abiazioaren kontrako Defentsa] ezantza ontzia lehertu ziola... eta handik oinez jin zela. Elizan pausatu zen omen. Amerikarra zela.

Bazena herrian ingelesa konprenitzen zuenik?

Nork zekien ingelesez? Errientsak espainolez bazekien, Madrilen egona baitzen familia batean, baina espainolez ere ez zekien gizon hark. Hartan, pentsatu zuten Gabadin bazela Lehideux izeneko gizon bat, bankuan lanean ari zena, segurki judua. Haren xerka abiatu ziren orduan bi mutiko, bizikletan. Gero mintzatzen hasi ginen, hark egiten baitzuen interprete lana. Kontatu zigun nahi zuela «Espainiarat» pasatu... Amendüzeko hiru gaztek deliberatu zuten laguntzea. Mithiriñan bazen etxe bat pasaia egiten zuena. Beraz, gauez gau, aitarene anaia, kusia eta bisean biseko mutila, hiruak joan ziren. Lehenik janarazi genuen gizona. Xantza izugarria ukan genuen, zeren eta gure etxea zaharra baitzen eta argia kanpotik ageri zitzaion. Alemanak korritzen ziren denean barrena, baitzekiten erori zela hegazkin hura, eta orotan xerkatzen zuten! Xantzaz, xantzaz, ez ziren jin Amendüzerat. Herri sartzeraino bai, omen, baina handik itzuli ziren! Hori gero jakin genuen!

Etxeratze agindua zelarik, oihal bat ezartzen genuen leihoan, baina hala ere kanpotik ageri zen argia...

Azkenean, alimaleko itzulia egin zuen Euskal Herrian, baina heldu zen beste alderat.

Hori izan zena Paul Miller?

Bai. Liburu batean bildua da hori: *Au péril de leur vie*, Jean Baptiste Etxarren Lohigorrik idatzia. Ene lekukotasuna eta Miller horrenak bilduak dira hor. Berriki deitu naute, liburu horretan ikusi baitzuten ene lekukotasuna, eta Paul Miller horren semea jin zen aitaren bidetik, eta mintzatu gara elkarrekin Jauberrian, aurtan, primaderan [iaz].

Hunkigarria izan zen, ez?

Bai, biziki, ez baikinen heltzen jakiten nor zen pilotu hura.

Nola zulatu zenuten misterioa: zuen etxean egon zen pilotu hura Paul Miller zela?

Etxarren horrek liburu hori argitaratu zuelarik, jakin zuen Ezkozen erori zela airekoa. Gero, Armendaritzen kokatu zuen gertakaria, Amendüzeren orde. Gure lagun bati eman zion papera, erranez xerkatzen zuela non gertatu zen xuxen. Eta hola heldu da guganaino. Uste dut Kaliforniakoa dela.

Zer adin zenuen hau gertatu zelarik?

Haurrak ginen, hamaika urte nituen, kasik hamabi.

Lotsatu zinetena?

Ez jakin nor zen, badakizu... Orduan behar zen kanpotar guziez mesfidatu: izaten ahal ziren armadako espioiak... Ene iduriko, izan dira horietariko gizon batzuk ostatuan egonak, eta desagertu direnak bat-batean... Salbatu gaituena euskara izan da: euskaraz ari ez zenaz mesfidatu behar zen. Gero ez ziren denak... baitziren errefuxiatuak eta Baiona eta Miarritzeko haurrak, gosearekin baitziren, hona igortzen zituzten.

Mendia ontsa ezagutzen zuten. Istorioak balio du irakurtzea, zeren eta gero Orbaitzetan gertatu zen, eta elurra. Ezterenzubitik bisean bis da, eta Irabiako laku horren bazterretik

pasatu zen, ezin ibiliz. Laguntzaileak zulo bat egin zion, eta han ezarri zuen. Laguntza bila joan zen Lorentzo etxerat, zabalzatarren etxerat. Eta hortik joan zitzaien bila, eta hola salbatu zuten. Zangoak karroindatzen hasi zitzaizkion, eta bazen han Hazparneko bedezi bat, eta artatu zuen.

Biharamunean eskolarat joan ginen eta errientsak hartu gintuen bi ahizpak. Afixa bat bazen, alemanek ezarria, eta afixan idatzia zen lagunduko zituenari edo salatuko zuenari, orduko bi milioi emanen ziotela. Aldiz, hura lagunduko zuena tiroz hilko zutela.

Zer erran zizuen errientsak?

Ez mintzatzea. Baina konprenitua genuen, bai, erran gabe ere. Haatik normala zen abertitzea, lagunekin mintzatuz eskapatzen ahal baitzitzaigun.

Nola oroitzen duzu pilotu hura?

Bitxia iruditu zitzaigun, gaizki beztitua. Zeren eta iragan zen etxe batean aitatxia hil berri zitzaien, eta haren arropa jantzia zuen, ttipiegi eta boneta ere begietaraino sartua zuen! Amendüzeko elizan lo egina zuen bi orenez gure etxerat jin aitzin. Erran zigun ere sustut ez zuela nahi burgesen etxerat joatea, nahiago zuela etxe pobre batean laguntza eskatu.

Bazituen ganibeta, sega... miniaturan, sekula preso egiten bazuten.

Zenbat denboraz egon zen zuen etxean?

Oren pare batez. Gauez gau eramán zuten. Osaba bostetan sartu zen joan-jina eginik.

Fikzioa dirudi. Maite zenuena leitzea?

Biziki! *Les malheurs de Sophie*, Comtesse de Segur horrena, oroit naiz irakurrik ere *Le Grand Maulne*, Alain-Fournierrena... Izugarri hunkigarria zen, biziki ari izan naiz negarrez... Gerlan idatzia zen. Errientsaren adiskide batek eman zidan...

Eskolan bazen biblioteka ttipi bat, eta hortik hartzen genituen, etxean ez baikenuen: ez ziren bi kazeta baizik sartzen: *Eskualduna* eta bestea *Accion Catholique Féminine* elizako batasunaren kazeta zen.

Nork zituen leitzen?

Aita-amek, igandetako plazera hori zuten.

ZURIAK ETA GORRIAK

Katiximan leitzen ikasi zenuena?

Bai, baina gero apezka biziki zahartua zenez, katixima egiten zigun andereak ez zekien euskaraz...

Apez zahar hori larzabaltarra zen.

Bai, ustez. Izugarri jakintsua zen, filosofiako ikasgaiak eta aipatzen zizkigun, pentsa guretako! Eta erraten zuten beti ez zitekeela Amendüzerat jin behar, baina zerbait bazukeen eginik eta poxi bat punitzeko ezarri zutela Amendüzen eta Gabadin. Ari nauzu, hori ene pentsamendua da, Larresoroko apezak kanporatu zituztelarik, kongregazioak kanporatu zituztelarik, nago ez zenez oldartu. Larresoron bazen landareez jakintza bat, eta, beraz, apez horrek landareekin sendatzen zituen jendeak, harritzekoa!

Anaia batek ukan zuen be-soa errerik, egosirik, odoletan! Jakin zuen, etxekoek ez baitzuten deitu, zahartua baitzen ordukoz, baina gelaria igorri zuen halako flasko ttipi batekin, eta bi egunen buruan mina joan zen, orbanik batere gabe!

«Afixa bat bazen,
alemanek ezarria,
eta afixan idatzia zen
lagunduko zituenari edo
salatuko zuenari, orduko
bi milioi emanen ziotela.
Aldiz, hura lagunduko
zuen tiroz hilko zutela»

Beste behin, amaren ahizpa bat Mixel Intxausperen etxean zen sehi, eta Intxauspek bazituen ezin sendatuzko pikorrak. Ur tanta zerbait helarazi zion eta sendatu!

Belagilea zen!

Bai, hala erraten dugu Zuberoan! Larresoroko historia egi-ten ari izan da norbait, eta erraten du han bazela landareez jakintsu bat, nago ez ote zen gure Bidart hori.

Zer duzu oroitzen hartatik ikasirik?

Ematen zigun beti arras guti ikastera! Ez dugu sekula lehen kapitulua ere finitu! Hiru baziren katiximan... [kur-kur-kur]. Aldiz, ondokoarekin kasu!

Bidart bezperetarik landa mintzatzen zen gurekin, filoso-
fiaz-eta... Ikasi nuen bazela filosofia [kur-kur-kur]! Behin, oroitzen naiz, meza bat eman zuen Gabadin, eta izugarriko hotza zen. Eta hark hor: «Zatozte haurrak, askalduko zarete!». Alta, baraurik egon behar zen komuniatzeko... Oroit naizen beste gauza bat: emazteek, haurra ukan ondoan, behar zuten berriz egin eliza-sartzea: kanpoan otoitz batzuk egiten ziren, hor garbitua zinen eta gero elizan berriz sartzen. Behin, ama joan zen, eta izugarriko denbora gaiztoa zen. Eta erran zion: «Gaixo emaztea! Hor kanpoan! Sar zaitez! Denbora horrekin!», eta sarrarazi zuen elizarat, batere otoitzik gabe. Jende zabala zen, ez dogmatikoa batere. Gero ez zuen batere errepublika maite. Erraten zuen: «*Liberté, égalité, fraternité*, hiru gezur horiek egiak balizte!». Errepublikak gaizki tratatu baitzituen. Bera gizon maitatua zen. Zaldia zutenak xerka joaten zitzaizkion.

Eskolan, nolakoa zen zuen egun bat?

Berrogeita hamar bat izanak gara. Bazen egun guziez morala.

Zer zen hori? Oroit zarea?

«*Qui vole un oeuf, volera un boeuf*» [Arroltzea ebasten due-
nak, idi bat ere ebatsiren du].

Laikoa zena zuen eskola?

Bai.

Alde batean eskola eta bertzean katixima.

Bai, baina ez zen ber jendea. Eskolan multzo bati lana ematen zuen, eta ariketak egin bitartean beste batzuk hartzen zituen. Bazuen merezimendua. Larderia handia ere bazuen, bere burua errespetarazten zuen.

Nola oroitzen duzu gorri eta zurien arteko giroa?

Aita zurieta zen. Gorrietan ere baziren familiak, ez anitz, baina baziren. Haatik, diferentziarik ez zen, salbu batzuk gorri zirela eta besteak zuri. Salbu hauteskunde garaian, sentitzen zela: behin batek erran zion gure amari: «Zuek uzki zuriak!». Gaitzitu zitzaion. Baina gero, ideologian eta ekintzetan ez zen batere diferentziarik. Familietarik heldu zen hori. Orain ez da entzuten gehiago hori, orain abertzaleak dira eta besteak. Etxeak ziren gorri edo zuri. Orain ere, orduko gorri berak dira oraingo abertzaleak, arras guti dira. Finitu dira zenbait, ez baita gehiago ondokorik. Orain ez da gehiago sozialistarik eta... bon, badira eskuindarrak eta gero abertzaleak. Bada ezkerrekorik, baina ez dira agertzen. Beste manera batean da orain.

Gorri horiek ez ziren deusetan ageri? Katiximarat abian ziren?

A bai, bai. Katiximarat eta elizarat heldu ziren. Bazen aita bat bere bi edo hiru semeekin eta errientsaren senarra ez zirenak elizarat joaten, salbu Pazkoz. Denak beha ziren delako aita eta hiru semeak ager zitezen, dotore-dotore...

Zuen errientsa beraz gorria.

Bai, baina sinestuna zen, eta senarrak urtean behin egiten zituen Pazkoak. Eta gu haien beha ginen, sekula ikusten ez genituenak ikusteko. Aldizkatzen ziren mezak: isila eta kantatua.

Zer duzu meza isila?

Goiz mezan ez zen deus kantatzen... Meza handia, aldiz, kantatuz zen, meza nagusia erraten zitzaion. Gero apeza zahartu baitzen, oinez joaten ginen Gabadirat, bizpahiru kilometro genituen, bai.

Heldu zena apeza zuen etxerat?

Ez. Bazuen gelaria, Claire. Behin samurtu zen, eta erran zion handik bazihoala. «Ez haiz kapable izan haur baten egiteko, hago hemen!», eta egon zen. Hura zuen igortzen tisanak eta zaurietan pasatzeko flaskoak etxeatarat eramateko. Apeza bera ez dut ikusi etxeetan. Jendea zen apezarengana joaten, kanpotik biziki jende joaten zitzaion.

«Gaztainen sasoian,
haurrak igortzen
zituzten gaztainen
biltzerat. Eta eskola
huts eginarazten zieten,
hilabete batez ez ziren
agertzen. Negu guzian
etxeetan zopa eta
gaztainen eta mestura
ziren jatekoak»

Nor zen delako Claire gelari hori?

Erraten da, egia den edo ez, ez dakit, baina gerla denboran, zerria hiltzean, azpizun bat ematen baitzitzaion apezari eta beste bat errientsari. Behin bere familiari bat eman ziola... Jendea ez zen kontent, baina ez zen ohartzen 30-40 etxeatarik azpizunak ukaitean, normala zela bere familiarekin partekatzea.

Bazutena gelariak eta apezak harremanik?

Ez! Ez dut sekula deus ere entzun!

Sasoiaaren arabera, sentitzen zenutena eskolan ikasle gehiago edo gutiago?

Bai! Gaztainen sasoian, haurrak igortzen zituzten gaztainen biltzerat. Eta eskola huts eginarazten zieten, hilabete batez

ez ziren agertzen. Negu guzian etxeetan zopa eta gaztainak eta mestura ziren jatekoak. Bizpahiru hilabetez gaztainak morkotsekin atxikitzen zituzten, hobeki kontserbatzeko.

Bestalde, hots ematen ari ginen: behien aitzinean usu haurrak baitziren haien kudeatzeko, iraultzen ari zirelarik. Horretarako ere hutsegiten genuen eskola. Aita hil ondoren, oroit naiz ari izana; brabanta itzuli behar zen, usu gizon batek zuelarik egiten... bizkarrak eta... Behiak uztarturik ari ziren, eta euliak bazirelarik begiak tapatzen genizkien. Ez bazuten abantzatu nahi, akuiluarekin ziztatzen genituen gibeletik. Mantsoak ziren, ez dut sekula istripurik ikusi.

Nork hezten zituen horretarako?

Etxekoek. Bazen eskuineko behia eta ezkerrekoa, bakoitzak bazuen bere lan-lekua.

Zenbat zenituzten?

Hamar bat behi genituen, zahartzen ziren. Behi on baten umea atxikitzen zen gero lanean aritzeko. Idiak zituztenak familia azkarrak ziren.

Behiak bai, idiak ez?

Behiak baino hauskorragoak ziren idiak, izerdituz bular errailetako zikina [tuberkulosia] behiek baino aiseago biltzen zuten.

Saltzean, ez zuten pagatzen jakin arte behia garbia zela.

Merkaturat abian zinetena etxeko mozkinen saltzerat?

Ez, ez bazen mandatua egitera, edo, behi, aratxe edota axuri saltzera; abere-saltzailearekin ez bazen tratua ontsa egin etxean, orduan, etxeetaratu heldu baitziren kabalen erosterat. Urdeak ez, ez zituzten merkaturat eramaten. Sasoian, gizen-durik. Xerriak saltzen zituzten, ume ttipiak, gero handiagoak, handiagoak, oraino handiagoak eta azkenik gizendurik, neguan, Eguberri inguruan.

Zer ematen zenieten zerrier jateko?

Lursagar azalak, beterraba azalak... Baxeren ura ere bai, ez baitzen xaboirik ezartzen, ez baitzen. Eta artoa.

Etxeko xaboia egiten zenutena?

Ez, guhauren burua garbitzekoa eta xuriketendako xaboia erosten zen.

Baduzua haurtzaroan gertatu anekdota ezin ahantzizkorik?

Oroit nauzu Donapaleurat joanik, delako katixima egile harekin, gimnastika ikusterat. Eta kantatzen zigun «*Tout va très bien, Madame la Marquise...*» [Dena ongi doa, kondesa anderea...]. Nahiz eta sutan hasten zaion etxea, teilatua zulo... Baina txarra kenduta dena ongi zihoakion kondesari, irrigarria zitzaigun! Katixima-emailea bera kondesa baitzen. Ezagutzen ez genituen bideetarik pasa ginen, biziki politik iruditu zitzaizkidan.

Oinez?

Bai, denak oinez. Gero ukan genuen bizikleta, komisioren egitera joateko, alportxak eta guzi. Fiteago eta gehiago ekartzen ahal genituen erosketak. Kontent ginen bizikletaz joatea, pentsa!

Beraz zuek ikusi duzue etxea bizikletarik gabe?

Ama entseatu zen, baina ez zen trebe. Mutila bazen etxean, eta bizikleta guk baliatzen genuen, eta berak ere. Bestetarat binaka abiatzen ginen, bata ontsa jarria eta bestea hatu-lekuan.

Mutilak ukan dituzue etxean.

Bai, nik hiru ezagutu ditut, denak familiakoak. Aitaren kusia, etxekoa bezalakoa zen. Siriara joan zen soldadutzara. Norbait jin zitzaion xerka, eta zapata parek ez zuen nehon ere atzematen, pare bakarra zukeen segurki. Eta agertu zen anaia ttipia: «Ez dituzu nehon ere atzemanen, nik baititut gorde, ez zitezen nehorat joan!».

Itzuli zena sekula?

Bai, itzuli zen. Baina joan orduko guk mutilaren beharra genuenez, aitaren anaia bat jin zitzaigun. Hura, aitaren ttantta-osaba batzuk baziren Amendüzen, eta gerla denboran gertatu baitzen, harat igorri zuten laguntzerat, ttantta hura bakarrik gelditu baitzen. Goiz batez jin zen erranez: «Ttanttak erran dit nahi banuen etxaldea har nezan». Etxalde hartan bazen seme bat, baina Alemanian zegoen preso. Desesperatu zen gure ttantta, eta horregatik aitaren anaia proposatu zion eta hara joan zen.

Azkenik, aitaren anaia bat bazen ere preso, eta hura jin zelarik ezkondu arte egon zen mutil. Gero, trenetan hasi zen lanean Pauen. Orduan ene ahizpak eta biok behar izan dugu laborantzan azkar ari.

Gogor izan zena zuretzat?

Bai. Oroit naiz iraultzen ari izanik arratsalde guzian, anaia bi urtez gazteagoa aitzinean... Hor sufritu genuen. Ahizpa biziki gehiago ari izan da. Gogor zen bai lana. Horrek ez du kentzen maitasun biziki ukan dugula etxean. Alta, berantago, aita eritu zen, bihotzetik, ogia ereitean sobera bortxatu zuen eta bihotza txartu zitzaion, eta mutilik ez genuen gehiago..., ezin atzemaenez segurki, bestela hartu izanen zuten. Beraz guk ari behar.

Garbiketa eskolarat zer adinetan joan zinen?

Hamalau urterekin. Alternantzian ari ginen, Donapaleun. Izugarri laket izan nintzen, gauza franko ikasi nituen: zuzenbidea, dietetikaz, kozinan aritzen... Han ikasiak baliatu ditut bizi guzian. Jende berri franko ezagutu nuen ere. Mutikoek bazuten sistema bera, baina laborantzari lotua, hiru anaiek egin zuten hori. Biek Maulen eta beste batek Donapaleun.

Eskolatik landa itzuli zinen etxerat.

Bai, hamazazpi urtetan edo. Hor etxean egon nintzen. Ahizpa sehi joan zen gero Pariserat. Orduan ni nintzen gehiena

gertatzen eta ez zen beti irrigarri. Aita hor zegoeno ongi, baina eritu zelarik gogor zen guretako. Lanak guk egin behar genituen, ama ez zen kanpoan aritzen ahal polioa bildu baitzuen...

Zu ere ahizparen bide beretik partitu zinen Pariserat.

Bai, anaia handitu-eta, hamasei-hamazazpi urte zituelarik.

Bazen oraino gazteago bat.

Bai, bi urte gazteagoa, hamalau urtekoa.

Beraz hiruren artean altxatu zuten etxaldea zu abiatu-eta.

Puf! Amak bazuen aski lan, bai: zopa, kontserba guziak, xuriketak... Beti ari zen lanean. Orain erran genezake esklabo. Hori zen denetan, nonbait han, anitz emazte ari ziren lanean kanpoan ere. Ez dakit nola ateratzen ziren!

Etxeko lanendako bazenutena laguntzarik?

Ez, guk egiten genituen, amak ere bistan dena. Baina oheak eta ganberen garbitzeak guk; baina hori ez zen gogorrena, gogorrena baitzen kanpoan aritzea.

Ninien xatakkak oihalezkoak ziratekeen bezala, emazteen-tzako konpresak ere hala?

Bai. Erosten ziren. Baina ez naiz segur... Amaren ahizpa Intxausperean etxean baitzen, zeintzuek baitzuten oihala denda bat, eta ttantta hark ekartzen zizkigun oihalak handik. Orduko horiek ez ziren etxean eginak, ez; oihalezkoak bai, baina erosiak. Alta, arropak bai, etxean eginak ziren; dendaria heldu zen bere mekanika besapean, eta eguna pasatzen zuen etxeetan, anitz lekutan. Dirua ematen zioten, honenbeste zen eguna. Zortzietan hasten zen goizetan, arratseko seiak edo zazpiak arte.

Haurrak nola ukan edo nola ez ukan, bazenutena horretaz solasik etxean?

Ez.

Eskolan ere ez?

Ez.

Beraz nola biltzen zenuten informazioa?

Lehen aldian, odol galtzeak ukaitean, harritu nintzen. Orduan amak esplikatu zidan zer zen. Ahizpak jadanik bazituen hilabetekoak, baina ez nekien.

Gordea bezala atxikitzen zen?

Bai. Behin arto saltzerat joan nintzen otto Jakesen etxerat. Orduan hango mutilak: «To etxeko anderea esperantzetan dugu, oihalak ez baitira gehiago hor idortzen ari».

PARISERAT BANOAZU

Nola bizi izan zenuen Pariserateko abiatzea?

Urratze bat izan zen. Ene bizitzako urterik latzena izan zen. Sehi izan nintzen etxe batean eta ez ontsa kausitu. Urtearen buruan joan nintzen. Batzuei erran nien ez nintzela egonen, joan nintzen Intxauspereen etxean zegoen ttantta horren laguntzerat, bakantza denboran. Legezko kanporatze-agiria eman gai nion, baina Pariseko etxeko andereak gutun bat idatzi zidan ez nendin harat itzul eta itzul nezan berriz taulierra. Gutun hura urratu nuen eta mandarraren sakelan sarturik itzuli nion.

«Pariserateko abiatzea urratze bat izan zen. Ene bizitzako urterik latzena izan zen. Sehi izan nintzen etxe batean eta ez ontsa aurkitu»

Nolakoa zen?

Biziki kafe eta horietarik edaten zuen. Gau guziez xanpaina erdi bat... Besteak leher eginarazten zituen, sukaldea xuritu aste

guziez, eta pitrailen artean... Lan gosea! Karaktere ezin pentsatua. Ni joan nintzen, baina beste batzuk eritu dira, zainetarik.

Zein zen zure lana?

Jatekoa, xuritzea, bazkaria eta afaria zerbitzatzea... etxeko lan guziak. Bera ere ari zen, egun guzia egoten zen bere ganberako arropa horrekin, ez zen beztitzen ere. Amendüzen zelarik bai, beztitzen zen arratsetan ostaturat itzuli baten egiteko. Udan Amendüzen egoten baitzen. Senarra kazetaria zen, euskalduna. Ez zen emazteen lanez axolatzen.

Seme-alabarik bazutena?

Alaba bat. Nik ateratzen nuen, amak ez baitzuen egiten. Bedezi egin da.

Ondotik, beraz, norat joan zinen?

Ahizpa koziner gisa ari zen De Chevignéren etxean, zeina diputatua izan baitzen. Han baginen hiru jende. Giro ona zen, zure lana egiten zenuen eta kito. Etxeko andere eta nagusi, gauzak ontsa egin behar, baina errespetatzen zizkiguten jateko denborak, pausa denborak... asurantzak pagatzen eta ongi ordaintzen... Telefonoan nik nuen arrapostua ematen. Jende normala zen, nahiz eta nagusi eta sahi izan! Gero, ene ahizpa joan zen eta bi ahizpa Asturiastik jin ziren. Orduan ni gehiago telefonoan eta holako gauzetan ari nintzen, ez nuen gehiago zerbitzatzen eta hola. Gero, galdegin zidaten haur batez okupatzea. Beste bizimolde bat zen, gau eta egunez. Baina oroitzapen ona dut. Beste bat jin zen urte bat berantago. Etxekoek ez zuten sudurrik sartzen. Ni nintzen jaikitzen gauez eri zirelarik...

Zenbat denboraz aritu zinen hola?

Pare bat urtez haurrekin, eta orokorki zazpi urtez Parisen. Gero aita izugarri gaizkitu zen. Ukan nuen deia erranez aita azken hatsetan zela. Amendüzerat joan nintzen orduan. Dakidana da bigarren haur horrek sekulako problemak ukan zituela ni joan-eta, izugarri atxikiak baikin. Behin gertatu

zen, igande arrats batez, pausa egunetik itzuli nintzen ganberarat. Etxeko anderea heldu zait: «Jeanne, har ezazu biberioia eta emaiizu». Ni ikusi eta hartu zuen, irriz. Gero artatu behar ukan dute naski. Amarendako hartzen ninduen. Bestea, lehen, biziki ohoratua zen; bigarrena goizxka jin zen, ama ez zen kontent, eta haurrak sentitu du.

Elkar ikusi duzuea geroztik?

Bizpahirutan bai. Baina ez dugu harremanik atxiki.

Etxetik kanpo, zein zen zure bizitza soziala?

Lagunak genituen, etxe ezberdinetako sehiak elkartzen ginen, Angeluko biga baziren. Apartamentu bakoitzak bazituen sehiendako logelak. Eraikineko apartamentuetako sehiak, beraz, elkarrekin egoten ginen gainean, geletan. Hirurek biziki ontsa elkar aditzen genuen, eta, bestalde, ahizpa ere Parisen nuen. Ni x. arrondizamenduan nintzen, Voltaire boulevardean; ahizpa ordea xvi.lean, Jean Richepin karrikan.

Metroz ibiltzen zineten.

Bai.

Noiz ikusten zenuten elkar?

Bi arratsalde genituen astean libre, igande arratsaldea eta ostegun arratsaldea.

Denek egun berak libratzen?

Bai.

Zer egiten zenuten?

Usu joaten ginen oihasan promenatzera, Bois de Vincen-nerat joaten ginen jokarin aritzerat, pilota elastiko bati lotua. Han pasatzen genuen arratsaldea.

Behin, ari izan ginen beraz arratsalde guzian, eta ene nagusiak eman zizkidan bizpalau sarrera armadaren ikusgarri baterako. Lagunei aipatu nien eta: «Joan behar dugua?»,

baietz. Arratsalde guzia izerditan egon ondoren, harat joan ginen. Sarrerak erakustean hantxe kokatu gintuzten, lehen lerroan, ofizialak zeuden tokian! Euskaraz ari ginen, ez zitezten ohar gure harriduraz. Zaldiak eta soldaduak-eta heldu ziren agurtzerat! Irri egin genuen! Zer nahaspila! Badira gauza batzuk hola bizian...

Bestela, zinemarat, teatrorat ere joaten ginen... Gauerditan edo itzultzen ginen etxerat.

Hori zuretzat berria zen, ez?

Bai. Ahizpa bai jadanik izana zela *Edurne Zuri* ikusten eskolarekin, baina ni ez. Normala zen guretzat. Ez naiz oroit bozkariaturik edo horrekin.

Neguan eta aro txarra zelarik?

Zineman edo metro-zuloan elkar atzematen genuen. Parisen denbora pasatzen ahal duzu.

Irabazten zenuen sosa etxerat igortzen zenuena?

Ez. Baina behin amak dirua galdegin zidan, ez baitzuen gehiago, eta bistan dena eman niola. Gero, etxean ez zituzten gauza batzuk ematen genizkien etxekoei, irratia, adibidez.

Irratirik gabeko etxea ezagutu duzu.

Bai. Anaia kontent zen, maite baitzuen Frantziako Tourra eta horiek, beraz pentsa ezazu horien irratian entzutea goxo zitzaiola!

PARISEKO EUSKAL ETXEAREN SORRERA

Paris dena berritasun izan bazen zuretzat, zuk ere bera irauli zenuen: Euskal Etxea sortu baitzenuen.

Euskal Herrian nintzelarik, Idieder geroztik Hazparden erre-tore egon dena zen gazteen omonierra. Neskameak ikusten

nituen Parisen, nola bizi ziren. Eta izkiriatu nion: «Hemen euskaldunak ez dira beti aise bizitzen, batzuk toki gaiztoetan gertatzen... Ez dira anitz erlijioan segitzen...». Eta galdetu nion ez zenez jiten ahal mintzaldi baten egiterat eliza batean. Ez dakit nola moldatu ginen baina izugarriko jendea bildu zen eliza batean.

Non?

Saint Honorén, xvi. arrondizamenduan.

Zenbat lagun elkartu zineten?

Milako bat edo.

Eta zenbatetan bildu zineten hola?

Bizpahirutan. Gero [Piarres] Xarriton jin zen, eta hark, behar zela zerbait muntatu, ez zela gazteria hola uzten ahal. Multzoka bildu ginen. Harritzekoa da ez gehiago oroitzea! Eta Euskal Gobernuarengana joan behar zela. xvi. arrondizamenduan bazuen etxea, Xarriton lagundu nuen. Leizaola lehendakariak hartu gintuen eta baimena eman zigun xvi.eko etxean euskal gazteria biltzeko. Hasi ginen biltzen igande arratsetan, baina badakizu, gazteria gazte, eta bazen denetarik... Orduan, etxezaina ase zen eta ez gintuela gehiago atxikitzen ahal.

Richelieu zentrorat joan ginen orduan, Xarritonen bidez beti; unibertsitateko gela bat zen. Han beste egonaldi bat egin genuen, baina han ere ase ziren gutaz.

Gero, Saint Severin eliza batean egon ginen, hango apeza euskalduna baitzen, Arimbat, gero artzain egin zen. Elizaren lurpean baziren sala handi batzuk, eta han bildu ginen. Ez gintuzten sekula kanpo ezarri, baina bai konpreniarazi partitu behar genuela! Hamar bat biltzen

«Gero Xarriton jin zen, eta hark, behar zela zerbait muntatu, ez zela gazteria hola uzten ahal. Multzoka bildu ginen. Harritzekoa da ez gehiago oroitzea!»

ginen beti, arrats horien kudeatzeko, ikusteko zer egiten ahal genuen, erlijioari buruz-eta... Ogitartekoak egiten genituen, edatekoak-eta... Eta hor da deliberatu etxe zerbaiten erostea.

Idiederri idatzitako gutun hori euskaraz idatzi zenion?

Pentsatzen dut baietz, baina ez dizut segurtatzen ahal.

Bazenekien euskaraz idazten beraz.

Bai. Ez ontsa, baina amari-eta beti euskaraz izkiriartzen nion. Gero dut ikasi euskaraz ontsa izkiriartzen, Euskal Etxean, berantago, prostitutez arduratzen zen apez batekin, eman zizkigun kurtsoak euskaraz nola idatz.

Oroit zarea apez horren izenaz?

Giltzu, nik uste. Euskaran trebe zen biziki. Egiten zituen ikastaldiak igande arratsaldetan, Euskal Etxean.

Nola ezagutu zenuen Piarres Xarriton?

Ez dakit Idiederrek eman zionez, edo han gertatu ginenez...

Zuek baino zaharragoa zen.

Bai, aise, estudioak egiten ari zen. Behar zela zerbait egin eta sekulako kopeta zuen! Lacoste familia Miarritzen egoten zenez edo, golf konkurtso bat antolatu zuten Euskal Etxearendako! Sehi euskaldunak zituzten etxeetara joan zen...

Beraz, hamar bat izan zineten Euskal Etxea erosi behar zela deliberatzen. Nola egin zenuten?

Xarritonek bazuen koinata bat, Guichandut, zeina zapata-saltzaile arartekoa baitzen. Parisen ontsa egina zenez, biziki argia eta trebea, ikusi zuten Passyn, XVI. arrondizamenduan, bazela oihalak xuritzeko eraikin bat. Sala handi bat eta inguru-inguru balkoiak oihalen idorrazteko, eta berina gainean. Ordukotz hemezortzi milioi frankotan zen. Guichandut horrek zioen afera bat zela eta erosi behar genuela. Xarritonekin bildu ginen eta: «Zerendako ez?». Eta sinatu genuen.

Beti bazen lehendakaria eta lehendakarisa. Beraz, Louis Domecq izan zen bata eta ni bestea. Eta bi mila franko zaharrekin erosi genuen, arras gutirekin. Notarioak erran zigun: «Ohartzen zarete arduradunak zaretela, eta ordaindu ezean, kartzela arriskatzen duzuela?». Nik erantzun nion ez nuela deusik galtzekorik; Domecq horrek, aldiz, bazuen iturgin enpresa bat. Apezpikutegiak xedea bermatu zuen; jaun artzapezpiku Terrierrek baimena eman zuen. Beraz sinatu genuen.

Bi lehendakariez gain, nor zineten?

Hamar bat ginen. Biltzen ginen usu eta hor deliberoak hartzen genituen elkarrekin.

Oroit zarea bertze kideez?

Bai, baina bizirik ez dut bihirik ikusten, denak joanak baitira. Baziren Garazikoak, Zuberoakoak... Intxauspe, Lahargu, Xarriton, Dagorret, Salagoiti...

Latsagiak baziren leku horretan?

Ez, arrunt hustua baitzen. Taberna bat ezarri genuen, mahai andana bat musean aritzeko. Lanak egin genituen; Domecq horrek zuen horren kudeaketa-ardura, ezagutzen baitzituen enpresak-eta, iturgintza lanak egiteko, konparazione. Sosa bildu behar zen. Galdegin zidaten emazte giristinoei mintzatzerat joatea: *Ligue féminine d'action catholique* [Ekintza katolikoko liga feminista] elkartean. Ama ere horretan biltzen zen. Beraz, Euskal Herrirat joan nintzen gaueko trenean, biharamunean haiekin mintzatu nintzen, gauaz berriz trenea hartu nuen, eta ondoko egunean berriz lanerat abiatu nintzen. Ipar Euskal Herriko parrokia guzietan egin zituzten sosa-biltzeak. Sosa andana bat bildu zen.

Lapurditik Zuberoaraino?

Bai. Gero sehi euskaldunak zituzten nagusien izenak ere bildu genituen eta gutunak igorri. Andana batek eman zuen.

Hego Euskal Herriko parrokiek eman zutena sosarik?

Ez, ez genien galdatu ere.

Gainerako diasporetako euskal etxeak inspirazio iturri izan zirena?

Ez, biltoki bat behar genuen eta hola zen abiatu; mugimendu euskaldun fededunetik, nahiz eta ez egin erlijiorik bertan, kapera bat bagenuen nahi zuenarendako, guk eraikia... Baina deus ez besterik. Gero logelak ezarri genituen Pariserat heldu ziren euskal langileendako, postetxean ari zirenentzat, ikas-

leei tokia eskaintzeko... Urte batez gehienik egon zitezkeen. Omonier bat ere bazen, zeina luzaz egon baitzen; hark zuen zaintzen nor heldu zen eta nork ordaindu zuen edo ez. Hor lo egiten zuten.

«Pariseko beste elkarte euskaldunekin bildu ginen: Pilotarien Biltzarra, zuberotarren biltzar bat ere bazen... Bederazka ari ziren, ez zuten batere harremanik elkarren artean. Hola egin zen Euskal Etxe laiko bat»

Izan zena sekula arazorik?

Ez dut sekula halakorik entzun, ez, problema handirik izan zenik. Gero, egia da ni joana nintzela ganberak oraino egin gabe zirela.

Behar handi bati erantzuten zion Euskal Etxeak.

Bai. Eta gero bereizi behar genuela erlijiotik.

Pariseko beste elkarte euskaldunekin bildu ginen: Pilotarien Biltzarra, zuberotarren biltzar bat bazen ere... Bederazka ari ziren, ez zuten batere harremanik elkarren artean. Eta hor bildu genituen, etxe hori bazela, eta nola egiten ahal genituen denek elkarrekin bilkurak-eta... Hola egin zen Euskal Etxe laiko bat.

Estatutuak aldatu zenituzten?

Bai, alabaina. Eman du denbora poxi bat, baina halarik ere, hainbat aise izan da.

Sosarik eman zutena?

Sosa bazuten zenbaitzuek, baina ez dakit eman zutenez... Sartu ziren eta tokiaren baliatzen hasi. Orduz geroz, Euskal Etxea beste euskal etxeak bezala izan da.

EUSKALDUN GAZTERIA

Arestian, Euskaldun Gazteria aipatu duzu. Zer adinean sartu zinen hor?

Uste dut hamabost urtetan?

Garbiketa eskolan zinelarik beraz. Zer egiten zenuten?

Artetan bagenituen bilkurak, Donapaleun usu.

Oinez abian zineten orduan.

Oinez edo bizikletan.

Ahizparekin?

Ez, ahizparekin ez, joana zatekeen ordukotz.

Eskolako lagunekin abian zinena?

Apez gazteak baziren, gu baino zaharragoak, eta jin ziren guregana galdetuz parte hartu nahi genuenez. Parisen izan zen izugarriko bilkura bat, ez dakit zenbat mila jende, harriarria! Frantzia guztitik bildu zen elkarteko jendea. Han izan nintzen, apezak bidaia pagaturik, baziren beste bizpahiru herritatik, eta Amikuzetik beste andana bat. Eta gero, ni urtearen buruan Pariserat sehi joan nintzen.

Zer egiten zenuten Euskaldun Gazterian?

Bilkurak egiten genituen eta dantzari ginen. Fandangoak-eta hor ikasi nituen.

Neskak eta mutikoak nahas-mahas?

Bai, nahas-mahas ibiltzen ginen. Amikuzeko herri guzietako jendea biltzen ginen.

Euskaraz ari zineten?

Bai! Dantzatzen ikasi genuen, Pariseko egun hartan eskualde bakoitzetik zerbait erakutsi behar baikenien.

Nolako esperientzia izan zen zuretzat?

A, harreman handia egin genuen. Behin, oroitzen naiz, ban-ku batean bazen emazte bat jarriarik, eta erran zigun: «Zuek JACekoak [Ikasle Gazte Katolikoak] zarete, plazer egin dit baserritarrak biltzea». Paristarrek jakin zuten eta batzarri ona egin ziguten.

Zein zen topaketa horren helburua?

Kongresu bat zen erlijioari buruz. Bizpalau egunez egon ginen, Paris bisitatu genuen ere. Han egon naizen denboran baino kasik haboro bisitatu nuen Paris egun horietan [kur-kur-kur]!

Euskarari eta Euskal Herriari atxikimendua nondik bildu duzu?

Denak euskaraz ari ginen, gauza normala bezala, ez ginen militantak. Euskaldun Gazteria euskalduna zen, hori segur. Lehenik Idieder hori, gero Xarriton... Bazan ere kazeta bat, osoki euskaraz: *Gazte*. Horretaz okupatu nintzen berantago Baionan.

Euskal Etxea ordainduta etxeratu zinen.

Bai, ez zen arazorik izan. Eta etxeratu nintzen, aita zendu zelaririk. Gero, Xarritonek galdegin zidan ez ote nuen izan nahi Euskaldun Gazteriaren arduraduna. Narbaitz bikario orokor-rrak bazuen orduan egutegi bat. Erran zigun ematen zigula eta horren saria guretzat zela. Horrekin ordaintzen nuen ene paga.

Zein izan zen xuxen zure lana?

Ene lana zen eskualde guzietako multzoak koordinatzea herrietan ere, baina eskualdeka baziren biltzar nagusiak. Beraz,

haiekiko harremanak zaintzen nituen, denen arteko koordinatzaile nintzen, egutegi hori egiten nuen... Eta, Aljeriako gerla denboran, handik igortzen zizkiguten letrak fotokopiatu eta denei helarazten nizkien, denek elkarren berri ukaiteko. Denek izkiriartzen zuten euskaraz, baina ortografia zuzendu behar genien... Hori guzia Xarritonekin batera kudeatzen genuen. Eta inprimatu, arraikusi eta zabaltzen genituen, hilabete guziez.

Gutun horiek jendeak banatuak izanen zirela jakitun idazten zituzten?

Bai. Bilduma egin genuen helbideekin. Euskaldun Gazteria azkar zen orduan, sareari esker. Herri guzietan bagenuen banatzaile bat, eta hark soldaduak Aljerian zituzten familier helarazten zizkien.

Gazte deitzen zen kazeta horretan zenituzten gutun horiek argitaratzen?

Ez. Bi gauza bereiz ziren: alde batetik *Gazte* aldizkaria bazen, herrika lagun batek hartzen zuen ardura herri bakoitzeko harpidetuei helarazteko. Harpidetu behar zinen diruaren kontra. Landart, Pagola, Davant, Ouret... hola hasi ziren izkiriartzen. Bestaldetik, aipatu gutun horien fotokopiak baziren.

Beraz, zuk ezagutu dituzu gero idazle handi bilakatu ziren horiek.

Bai! Apezgaiek bazekiten izkiriartzen, baina beste anitzek frantses fonetikaren arabera idazten zuten; haiek genituen zuzentzen.

Giro hartan elkar ezagutu zenuten senar izanen zen Jean Louis Davantek eta zuk.

Bai, Xarritonek eta berak elkar ezagutzen zuten. Pentsatzen dut Xarritonek ziola galdetu hor idaztea, hor hasi zen izkiriartzen, bai. Xarritonek gaitzeko lana egin du. Biziki urte goxoak pasatu ditut.

ALJERIAKO GERLA

Orduan iritsi zen Aljeriako gerla, eta hara joan behar izan zuen Davantek.

Bai.

Bere gutunak ere errezipitzen zenituen, beraz.

Bai, eta bi anaienak ere bai. Zentsura bazenez, igortzen zuten, baina gehiago herriari lotuak ziren ezen ez eta Aljeriari. Ez dut nehon ikusi «Aljeria aljeriarra» edo «Aljeria frantsesa»... Gehiago aipatzen zuten zer egiten zuten, non izan ziren eta hola. Hots, ez zen agertzen Aljeriari buruz zer pentsatzen zuten.

Hori ez zen aipatzen.

Ez. Ez dut nehon ikusi Aljeriak aljeriarra izan behar zuela, adibidez. Nik bai, hola pentsatzen nuen: herri bezala, guk bezala, haiek ere beraien herria behar zutela. Zenbaitzuek bai, erdi elez, aipatzen zuten, Jean Hiriartek, Itzainak..., horiek bai. Itzaina eriturik sartu zen.

Hango izugarrikeriak gero jakin zenituzten beraz.

«Ez dut nehon ikusi
Aljeriak aljeriarra izan
behar zuela, adibidez.
Nik bai, hola pentsatzen
nuen: herri bezala, guk
bezala, haiek ere beraien
herria behar zutela»

Bai, anaia batengandik. Baño presoner etxe batean zen eta ikusten zituen pertsonak joaten eta gibel etxerat jiten zaku batean.

Beste anaiak *oin beltzak* ez zituen ikusten ahal. Haien zaintzen ari ziren, eta, behin, oilo bat lehertu zuten, eta pagarazi zieten ez dakit zenbat...

Beste behin, laranja zenbait

hartzeko baimenik ez zieten ematen... Anaia hori ez zen Frantziaren alde, sartu-eta egon da zenbait hilabetez ez ontsa. Eta baziren beste batzuk ere, ez ontsa sarturik.

Ez batak ez besteak ez zuten torturarik ikusi, baina bazela bazekiten.

Emazteekiko bortizkeriaz aipatu zuten deusik?

Ez, batere. Isiltasuna zen.

Behin Xarritonek nahi izan zuen tortura salatu, baina Euskaldun Gazterriako presidenteak ez zuen nahi izan, hori politika zelakoan.

Hortik laster iritsi zen 1968ko Maiatza.

Ezkondua nintzen orduan, baina errotik alde ginen! Haatik, gaizki finitu zen; gaullistek egin baitzuten gaitzeko manifestazioa, eta hautsi zuen mugimendu guzia. Auzoan banuen bat biziki kontra jarria zena, behin erran zidan: «Hilabete-koak ukan ditut, futitzen naiz orain!». Senarra Baby Relax enpresan ari zuen, nagusiak eginarazi zuen sindikatu bat 68ko Maiatzaren kontra aritzeko. Baina gero, sindikatu hori bera altxatu zen enpresaren kontra [kur-kur-kur].

Nola sentitu zen 1968ko Maiatz hori Ipar Euskal Herrian?

Grebak baziren eta ez zen gutunik heltzen, ez zen irrikirik.

EMAZTEEK DIOTE

Ondorioz zenuten sortu Emazteek Diote elkartea?

Hor ere gertatu zen, Parisen Euskal Etxearekin bezala, beste bospasei lagunekin. Emazte jostun andana bat bildu genuen panpinak egin eta ikastolaren alde sosaren biltzeko. Hor deliberatu genuen zergatik ez genuen elkarte bat muntatuko. Bazen emazte andana bat. Artikulu batzuk egiten genituen emazteen alde, baita beste gauza franko ere. Eta gero, hortarik kooperatiba bat egin genuen folklore-jantziak egiteko. François Mitterranden denboran zen, eta lege batzuk ezarri zituen plantan baserri aldean lantegiak zabaltzeko.

Etxarriko eskolan muntatu genuen delako kooperatiba hori, Kultura Ministeriotik ukan diruari esker. Kostumak egin genituen, baina andana bat egin eta gero, lanik ez zen gehiago, diru laguntzarik ere ez gehiago. Orduan desegin ginen.

Zer agitu zen kooperatibako tresneriarekin?

Kooperatiba bat baitzen, tresna horiek beste elkarte bati eman behar zitzaizkion. Hazparnen baitzen Emazteek Dione elkartea, orduan hari eman genizkion kitorik, eta bietan asteen arropak egiten ikasteko kurtsoak ematen genituen. Sustut langabezian ziren emazteentzat. Oraino ere segitzen du elkartek. Badakizu, gauzak ez dira aitzinetik eginak, hasten zara alde batetik, eta beti urrunago...

Zerk zintuen akuilatu emazteen beharren alde egitera?

Hazparnen baziren emazteak trumilka lanik gabe, eta ez zara hola egoten ahal. Ez dugu gauza handirik egin, baina bon... Egia da heldu ziren haiek denek lana atzeman dutela. Badakizu, elkarrekin mintzo ziren, non eta nola planta.

Elkartasunez.

Bai, elkartasunez. Hala gertatu da, baina bakoitza bere etxean egon ordez, elkarretaratzen ziren eta...

Haatik, zu, pertsonalki, ez zinen lan beharretan.

Ez. Laguntzen nituen arropak egiten. Ikusi dut mekanika haiek elkarte batek behar zituela, eta hor asmatu dut zergatik ez haiei eman. Beraz, Hazparneko Herriko Etxeari eskatu genion lokal bat eta ukan genuen. Erosi berri zuen lantegi bat, baina ez zekien zer egin. Beraz, gu izan ginen lehenak herriko etxeak erositako lokal horren baliatzen.

Konta iezaazu otoi markatu zintuen emazte haren istorioa.

Parisen gertatu zen. Puf! Gaixo neska! Euskal Etxean ibiltzen zen. Dantzan eta ari izan zen, eta gau hartan haurra ukan

zuen. Esperantzetan den emazte batek hori egitea, pentsa ezazu tinko zela!

Sehi zen etxean haurra ukan zuen, lanean, bakarrik; haurra hil, eta ezarri zuen ganerrean nagusien baliza baten barnean. Eta biharamunean lanean segitu zuen. Gero, etxez aldatu zen. Nagusiak bidaiez behartu ziren eta balizan atzeman zuten noizbait ere haurra: usteldu gabea, sikatua. Haiek salatu zuten. Baina neska hori, ordukoz, emazte abokatu gazte baten etxerat aldatu zen, sehi lanetan aritzen segitzeko. Hartan, abokatuak lagundu zion: «Behar duzu berehala joan norabait, baduzua norbait Ameriketara?», eta bazuen han familia, beraz harat joan zen, bestela auzi handi bat ukanen baitzukeen. Istorioa izugarria da, behar duzula borondate!

Ukan duzua geroztik emazte horren berririk?

Ez, batere.

Markatu zintuena emazte gisa kontzientzia hartzeko?

Bai. Gero, Hazparden ere bazen emazte andana bat lanik gabe. Izan da momentu bat langabezia ikaragarria baitzen. Baziren ere beste malur batzuk ikusten genituenak Hazparden.

Malur horiek nolakoak ziren?

Badakizu, emazte bat ezagutzen nuen, zeina goizeko bostetan jaikitzen baitzen josteko, espartinak edo ez dakit zer. Eta, arratsetan garbiketak egiten zituen bankuan eta holakoetan. Lau haur zituen eta senarra langabezian zuen. Holako egoerak ikusten dituzularik...

Ez zinen deus egin gabe gelditu.

Behin erran zidan mediku batez: «Pleinitu da medikua: badu Parisen apartamentu bat alabarendako, beste bat Miarritzen berendako, beste bat Bordelen beste alabarendako... Ezin helduak direla! Gaizo medikua!». Orduan erran nion: «Zuk zure senarra lanik gabe duzu eta medikuak egun bakarrean biltzen du zuk bizpahiru hilabetez bilduko duzuna! Ez da bortxatua

hiru apartamenturen ukaitera eta beste bat Hazparnen!». So egizu, nola bihotza... Mediki bat negarrez ezin heldua! Lanik gabe den bati hola aritzea... Langabetuek behar zuten herriko etxean agertu aste guzietan, nik uste. Emazte hura, puf! Ez zen pleinitzen; josterat heldu zen, izugarri adreta zen.

Beste behin sindikalista bat agertu zen, lana galdurik, bistan dena. Gero, apezek hartu zuten beren zerbitzuko. Berak sindikatuaren zelakoz galdu zuen lana. Hazparnen izugarria zen nagusien lana!

Hauteskundeetan hautagaia izan zara.

Behin herriko etxeko bozketan presentatu ginen, bai. Miterranden denboran zen, *Union de la Gauche* koalizio horretan abertzale batzuk sartu ginen. Gizon batek erran zidan: «Nahi nuke presentatu nik ere, baina amak ez du nahi, lotsa da, etxea nagusiena baita, kanpo ezar gaitzaten». Beste behin ere, oroit naiz, nagusi puxant bat joaten zen bere itzuliaren egiterat bazkal-eta. Hartan, langile bat kanpoan ikusi zuen, eta erran zion hura promenatzen zen tenoreetan ez zedin ateral! Badituzu holako gauza batzuk, ez zara egoten ahal deus egin gabe. Gauza guti egiten duzu, xorta batzuk, baina behar da zer bait egin. Bilkurak ere egiten genituen...

***Planning Familial* elkartearen adar bat Hazparnen sortzen entseatu zineten, bai ere hartzaindegi bat. Baina ez zenuten kausitu.**

Erizain batek erran zigun nola emazte bat zortzigarren aldikoz esperantzetan zen eta jin zela abortatzerat klinikarat, eta holakoak bazirela... Jendeak ez zekiela, ez zituela ezagutzen zein ziren beren deretxoak. Entseatu ginen beraz *Planning Familial* elkartearen Hazparnen sortzera, jendea informatzeko.

Gero, hartzainak baziren, emazte batzuk beraien etxean haur batzuk zaintzen zituztenak. Emazte horiek biltzen zituzten herriko etxean informazioa eta gomendioak emateko. Langabezian ziren batzuek hori egin zuten. Horiengatik herriko etxeak ez zuen nahi hartzaindegi bat ireki zedin.

Beti entseatu zara beraz emazteak libreago egiten.

Bai. Eta Emazteek Diote beti bizi da, eta plazer egiten du. Ez duzu horri pentsatzen, egin egiten da eta kito. Lagunekin nintzen, ez nintzen bakarrik.

Haurrak ukan-eta, zein ofiziotan aritu zara?

Kooperatiba horretan aritu nintzen, eta gero ez dut beste ofiziorik egin. Jean Louis [Davant] biziki hartua zen, eskolan buruzagi zen, eta, bigarrenik, Enbatan biziki inplikaturik. Behin alabak erran zidan: «Nahiko nuke aitak zangoa hauts dezan, etxean egoteko!».

Zure gain hartu duzu beraz etxeko lana.

Bai, Jean Louisek ahal zuena egin du.

81 amama dokumentalean parte hartu zenuen. Baserri-tik hirigunerat abiatutako belaunaldi berriei mintzo da. Transmisioaz mintzo da.

Mintzatu nintzen orain zurekin mintzo naizen bezala. Ez zuen beste ondorioz ukan.

Nola bizi izan duzu belaunaldien arteko desberdintasuna?

Egunean egunekoa bizi izan dut. Gero, Planning Familial aipatu baitugu, bazen ere elkarrekin gertatzen. Eta behin edo bitan ibili naiz. Horiek ere laguntzen zituzten haurra galdu nahi zutenak. Bilkurak egin behar zituzten haurra galdu aitzin, jakiteko zinez nahi zuten, ohartzen zirenez ondorioez..., eta Baionan bazuten antena bat. Han banuen adiskide bat, eta erran zidan ez zela bihirik izan gibel egin zuenik.

«Behin herriko etxeko bozketan presentatu ginen, bai. Mitterranden denboran zen, *Union de la Gauche* koalizio horretan abertzale batzuk sartu ginen»

Veil Legeaz geroztik?

Bai, ondotik. *Couples et Familles* [Bikoteak eta familiak] deitzen zen egitura hori. Horiek ere lan egin dute! Baionako ospitalean harrera egiten zuten aste guzietan.

Ezagutu dituzua legezkoa izan baino lehenagoko kasuak?

Ez. Ez zen jakiten, erratea eta egitea arrisku handikoa zen. Bilkura zenbaitetan izan nintzen, aholkuak ematen ikasteko. Hola, ikastetxeetan ibili izan nintzen gazteak informatzeko. Zerbaiten egitera entseatu gara, ez baikenuen kausitu Planning Familialen plantan ezartzea.

Zergatik ez zenuten lortu?

Alde batetik Baionako Planning Familiali galdegin geniolako adar bat Hazparnen zabal zezan, herriko etxeari halaber; alta, biek ezezkoa eman ziguten.

Zein ofizio eginen zenukeen, orain hautatuz gero?

Mugimendu baten barnean lan egitea, elkarte batean. Hark dit eman biziko momentu goxoena: besteekin lan egitea, elkar lagunduz. Beste gauza bat behar dizut erran: katixima. Ez zen katiximarik euskaraz Hazparnen. Behin apez batek galdetu zidan: «Ez zenuke katixima egin nahi?». Eta erran nion: «Ez, ez, baina bakarrik euskaraz egiten baduzue, orduan egin nezake». «Ui, baina ez da politika horretan ezarri behar!», erantzun zidan. Dударik gabe beste apez bati erran zukeen, eta hark: «Bai, bai, atzemanen dut nik: euskara daki-tenak ezarriko ditut multzo batean». Beraz, katixima egin dut etxean. Behin, emazte bat jin zitzaidan baizik eta frantsesez nahi zuela katixima bere haurrarendako, ez euskaraz. Erran nion orduan apezarengana joan zedin, haiek eman zidatela, eta kendu nahi bazuen haiengana joan zedin. Gero, erran zidan haurrak berak ez zuela kanbiatu nahi... Ez zukeen gogorik apezenganat joateko [kur-kur-kur]! Hola hasi zen Hazparnen katixima euskaraz.

HAZPARNEKO IKASTOLAREN SORRERA

Berrogeita hamar urte bete dituen Hazparneko Ikastolaren sorreran ere parte hartu duzu. Ez zatekeen aise...

Bai eta ez. Hazparneko parrokian baziren lehenago bi gazte-multzo; batetik neskak eta bestetik mutikoak, badakizu, kirola egiteko-eta hola, elizaren pean betiere; eta haren bilguneak Patronala zuen izena. Presidentea zuen *oin beltza*, ikastegi teknikoan irakasle zena, eta ez zekien sobera non ari zen. Hari galdetu zioten tokia ikastolaren irekitzeko, eta hark eman. Nik uste gero zernahi entzun zukeen! Nahi zuen ikastolako presidentea izan, ai, ai ama! Orduan erran nion: «Baina zure haurrak ezarriko dituzu ikastolan?», ezetz. Orduan ez zen lehendakaria izan, baina bitartean lotsatu nintzen [kur-kur-kur]!

Sorrera nolakoa izan zen: zerk zintuen akuilatu horretara? Zer behar sentitu zenuten horren egiteko?

Ikusten genuen eskolan sartu orduko haurrek ez zutela euskara gehiago ematen. Eskola librean [frantses eskola pribatua] galdegin genuen euskaraz egin zezaten, eta baietz erran ziguten. Beraz, izena ematera joan ginen, baina hondar momentuan erran zidaten ez zutela eginen.

Beraz, familia batzuk hasi ginen arranguratzen. Eskola frantses publikoari ere galdegin genion elebitasuna, baina ez genuen lortu. Nahi genuen gure haurrek euskaraz ikas zezaten iraunkorki.

Hola abiatu ginen beraz.

Haren genesian bospasei kreatzaile bildu zineten.

Bai, Bidondo, Bortairu, Bidart, Arotzarena, Lakabaratz... Beti hamar bat baginen bilkuretan. Seaskakoekin bildu ginen. Aurkitu genuen andereño bat: Andere Bibens, geroztik ezkontzaz Camblong bilakatu dena. Haurrek maite zuten! Orduan ez zen ama-eskola baizik. Gure Xantiana, alaba gazteena, hor sartu genuen; haatik, gero, lehen mailan, eskola frantsesean ezarri

behar izan genuen, eta izan da blokeaturik, izugarri bortitz izan zaio hartan egokitzea: geldirik egon behar egun guzian, ez mintzatu behar ez bazizuten zerbait galdetzen...

Nola moldatu zineten andereñoaren ordaintzeko?

Familia bakoitzak behar genuen beste familiarik bildu, hila labete guzietz honenbeste emateko. Bestalde, behar genituen

testuak frantsesetik itzuli, inprimatu... Katiximan bezala.

«Euskaraz ateratzen diren liburuak irakurtzen ditut.

Herria halaber. Egun guzietz leitzen dut, hori bai. Bazter guziak liburuz beteak ditugu etxean»

Katiximan Iñez Larrouletek, Teresa Segueinek... sosa bildu zuten liburuen euskaratzeko, inprimatzeko... Apezpikuak, bere momentuan, erran zigun: «Egizue euskaraz, baina nik ez dizuet dirurik emanen». Alta, dena egina zelarik, galdegin

zigun: «Biziki ongi kausitu duzue euskaraz egitea, eginen duzuea gauza bera portugesez?». Haiek ere, segurki, itzulpena galdetu zuketela... Ontsa errezibitua izan zen [kur-kur-kur]!

Badira holako gauza batzuk...

Surrealistak.

Bai, bai, ezin pentsatuak. Hola abiatu zen euskarazko kati-xima hemen.

Bazenutena harremanik Aita Marzel Etxeandirekin, materialaren euskaratzeko?

Ez, geroago izan zen hori. Apez batzuek harritzeko lana egin zuten. Erromatik galdegina izan zitzaien liturgiako testuen itzulpena muga bi aldeetarik berdinekin egin izan zedin; ez bi euskara desberdinetan. Hola ziren bildu bi aldeetako apezak.

Irakurzalea izaten jarraitu duzu?

Giono eta horiek oro leitu izan ditut, eta euskaraz ateratzen ziren liburuak ere irakurtzen. *Herria* halaber. Jean Louis senarrak

idazten duelarik ere zentsura-egilea naiz [kur-kur-kur]. Txi-llardegiren batzuk ere irakurri ditut... Gero, ez ditut gogoan atxikitzen izen guziak. Egun guzietan leitzen dut, hori bai. Baiter guziak liburuz beteak ditugu etxean. Handiena da Jean Louisek zerbait behar duelarik atzematen duela!

Ezagutu duzu jende oro euskaraz ari zelarik baina ez zegoelarik libururik euskaraz.

Bai, bazen bakarrik *Eskualduna* kazeta. Eta hortaz okupatzen zena Pétain jeneralaren aldekoa zen, Arotzarena deitua. Gero, gerla bukatzean, ernegu zenbait ukan zituen, ez naiz oroitu nola pasatu zen, eta erresistentzian zen Lafittek segida hartu zuen, *Herria* kazeta sortuz.

Orain, berriz, liburu franko bada euskaraz, baina ez da hainbertze aditzen euskaraz karrikan.

Ez, eta Internetekin jendeak ez du gehiago irakurtzen, edo guti. Gero batzuk ontsa saltzen dira. Ez da erosten... Azoketan pasatzen da jendea, ele onak egiten, baina ez du erosten. Gero argazkiak eta dituztenak errazago saltzen dira...

ORAINGO ARRANGURAK

Zer duzu orain arrangura?

Gazteriarendako drogaz biziki lotsa naiz. Gazteriarengan konfiantza dut, baina zer utziko diegun... ekologikoki, eta gerlak ere... Uste genuen bakean ginela, baina denetan sua pizten da, eta hori ezagutu dugu. Lehen ere, gerla gerla zen, baina oraingoa oraindik piesagoa da: dronak, sateliteak... Denak badakizkitez... Ez da gehiago bizi pribaturik.

Gauza onak ere badira, e? Gauza horiek onarendako baliatzen badira, erresurtsa izugarri ona da. Baina sakelako telefono horiek... Egun guzian ikusten dituzu gazte horiek telefonoan... Ez dakigu beti zerk interesatzen dituen, baina...

Etxekoak ere non dira? Nahi lukete besteek egitea, baina ezin da besteen gain kontatu. Gero, ahal dena egiten da, aita-ama izatea ez baita erraz. Gainera badira modak...

Eta euskararen gainean, zer diozu?

Ikastolak izugarriko lana egin du. Ikastolan egon haurrek gaitzeko lana egiten dute, kulturaren-eta. Harritzekoa da zer egiten duten. Euskara sartu da eskola guzietan kasik. Eta orain haiek ere murgiltze ereduan dira. Ikastolan beharbada haur gutiago izanen da, murgiltze eredu hori hedatuz...

Herrian badira hiru ahizpa, eta biziki ederki ari dira euskaraz, alta, aita-amek ez dakitelarik batere. Orduan euskara gaitzekotan zen. Baina gero problema Zuberoan duzu elizak ez duela kasik gehiago egiten euskaraz, kantikak-eta frantsesez direla euskaraz baino haboro... Gure adinekoek euskara dute beraendako, publikorik bada, ez.

Behin gertatu zait, saltzaile bat euskaraz ari ene aitzinetiko klienteari, ni ere ene aldian saltzaile hari euskaraz, eta hark: *«Je ne vous parlerai pas en basque à vous»* [Zuri ez natzaizu euskaraz ariko], 60 urtetik goiti da hori. Baina, gazteetan, ez da berdin: badira euskal estudianteak lan inportanteak egiten dituztenak eta lanpostu goretan. Nolaz hain ontsa kausitzen duten euskaraz ikasitakoek, ea denez etxean ongi lagundu dituztelako, edo denez elebidunak direlako. Eskola publiko frantseseko irakasle batzuek diote ikastolatik atera diren haurrek frantsesa hobeki kudeatzen dutela frantses eskoletariko ikasleek baino. Biga ezagutzen ditut horregatik ikastolan sartu dituztenak.

Egia da ikastola batzuek badutela arazoa haur guti sartzen dela... Baina, bon, ez da behar kexatu herrietan euskaraz ikas dezaten, haatik badu bere itzala. Urrunetik heldu gara!

Bururatze aldera, Joana, hondar galderaño batzuk eginen dizkizut, orain arteko aipagai guziak borobiltzeko.

Zurien familiakoa izanda, nola bizi izan duzu gorrien borrokan aritzea: ikastola, 68ko Maiatza, emazteen aldeko borroka...?

Zuri eta gorrien arteko afera Frantziako politikari lotua zen, eta bereziki eliteen arteko lehiaketari. Zurien buru ziren elite zaharrak: apezzeria eta lur jabeak; gorrien buru elite berriak, liberalak, jendarteko gauzetan irekiak, ekonomian diruzaleak. Baina herrian ez genuen egiazko diferentziarik familien artean, bereziki ideologian: denak elizan ibiltzen ginen, denek elkar laguntzen genuen, harremanak lasaia genituen. Soilik bazen etxe bakoitzaren atxikimendu bat, tokiko lider gorri bati, edo lider zuri bati, herriko bozetan: orduan bazterrak pixka bat berotzen ziren.

Gerla ondoan indar gazte bat agertu zen Frantziako eskuinaren eta ezkerren artean: kristau-demokraten. Urte zenbaitez indartsua, bereziki hemen, Errekart, Etxeberrri-Aintzart eta Labegerie bezalako buruzagiekin. Familian horien alde bozkatzeko genuen. Gero, frantses politikatik urrunduz, erdi horretatik sortu zen Enbata, katolikoz betea, baina mugimendu laikoa, ezkerreko lerratz joan zena usaia bideetarik kanpo. Hortik ibili nintzen lasaiki, naturalki, giristino egonez buru hausterik gabe, apezek manaturik izan gabe.

Bazen aita Larzabal, hura ari izana zen CFTC –gero CFDT bilakatu zena– langileen sindikatu katolikoa muntatu baitzuen Hazparnen; berak bide hori beti segitzen zuen, Enbatan ere markatzen zuen bere tokia. Berak zuen agertzen kristau-demokraten bidea.

SINESMENA ETA ENGAIAMENDUA ESKUZ ESKU

Zure engaiamenduak eta sinesmenak talka egin dutea noizbait?

Galderak bai pausatu izan ditut, baina ez naute sekula nahasi. Eta, beti taldean ari izan naizenez, gehiengoak manatzen

zuen. Politikan, dena den, ez zen erlijioari erreferentziarik egiten.

Barkatu, akuilatzen zaitut: emazteen aldeko deretxoen borroka, emazteak libreago egite horretan, oro har, elizak ez du babesten. Ez zitekeen beti aisa izan zuretzat.

Planning Familial edo Couples et Familles plantan ezartzea ez da nolanahi egiten, behar da formazioa. Gure lana zen emazte batek galdatzen bazuen holako laguntza –abortatzea– haiengana igortzea, zeintzuek esplikatuko baitzioten nola pasako zen, zer ondorio izanen zituen...

Zuek bideratzen zenituzten, beraz.

Bai, hori da laguntzea jendea, eta hori giristino izatea da. Heldu zaizularik laguntza beharretan jendea, laguntzen duzu, ez dit horrek neholako arazorik ekarri.

Zenbaitetan, abortatu baino lehenagoko elkarrizketan, kontzientzia-zama egiten omen zitzaien emazteei.

Guk ez dugu halakorik egin, guk haiek lagundu baizik ez genituen egiten, egin genituen ikasketa horietatik. Gu artekariak baizik ez ginen.

Bakardadetik, beraz, zuengana joaten ziren.

Nihaurrek ez dut ukan laguntza hori egiteko paradarik, nehork ez baitit galdatu. Baina besteek bai. Bakoitzak bere kontzientziatik laguntzen zuen. Hartako doia, sexualitatearen gainean mintzatzen ibili gara ikastaldiak emanez eskola zenbaitetan, gazteekin, Couples et Familles-en baitan.

Nolako izan da zure fededun ibilbidea? Euskal Etxean bereizi zenituztelarik erlijioa eta euskal etxea?

Ene fedea beti hazi dut irakurriz, eta araberako mugimendu batzuetan parte hartuz: Euskaldun Gazterian (1947-1961), geroztik Herri Ekintzan, bitartean Fededunak elkartean eta

euskarazko katixima egileen taldean. Vatikanoko II. Kontzilioak bidea erraztu dit Eliza katolikoa mundu berriari zabalduz, ebanjeliora itzuliz, bi mila urtez bildu plegu gogorren gainetik. Bestalde, laikotasun lasai bat bizi izan dut herrian: batetik zen eskola laikoa, nahiz errientsa katolikoa genuen, bestetik apezak elizan; elkar errespetatzen

zuten, gainera kontraerranik ez zen eskolako moralaren eta katiximakoaren artean. Beraz, Euskal Etxean laikotasuna frantziako normalki bete genuen: nahi zutenen zerbitzuko hor zegoen omonieria, eta kito!

Abortua ez da haurrik ez ukaiteko molde bakarra, ez dut nehor horretara bultzatu; baina laguntza beharretan zitezkeen laguntzeko prest nengoen, bai Planning Familial delakoa-rekin, bai Couples et Familles elkartearekin. Bilkura batzuetan ibili gara gazteen argitzen bizi sexualaz. Gai minbera da, naski, espanturik gabe aipatzekoa.

«Planning Familial edo Couples et Familles plantan ezartzea ez da nolanahi egiten, behar da formazioa. Gure lana zen emazte batek galdatzen bazuen holako laguntza –abortatzea– haiengana igortzea»

Sentitu duzua aldaketarik zure garaiko informatu behar horren beharra eta oraingo gazteengan?

Kontrazepzioa aipatzen zen bi elkarteetan, abortua zela azkenena, hots. Ez bazen haurrik nahi, zer egiten ahal zen. Abortua ez zela manera bat kontrazepzioa ordezteko, ez, abortua lanjerosa zela, ondorioak bazituela... Beraz, pilula aipatzen genuen, temperatura-metodoa ere aipatzen genuen...

Preseski, zein ziren kontrazepzio motak?

Tenperatura-metodoa, pilula, baina hori neke zen, medikuaren ordonantza behar baitzen. Bazen ere umetoki bareneko gailua [DIU]. Ez ziren 50.000 mota. Bazen ere Ogino metodoa, japoniar mediku batek abiatua, emazte guziek

ber zikloa balute bezala; ontsa erregulatua zenarendako ontsa zebilen, baina besteendako ez... Zikloaren ezagutza ona behar zen.

Nahigabeko sorpresak eragin zituzkeen...

Bai! Ikerketendako ona zen mediku hori, zikloa ongi esplikatzeke, obulazioa eta abar... Baina gero...

Eta preserbatiboa?

Ez zen modan eta gainera ez zuten gizonengan kontatzen.

Horretan bada alde pixka bat, ez?

Bai. *Capote anglaise* [kondoi ingelesa] erraten zioten preserbatiboari. Eta ingelesak, omen, *capote française* [kondoi frantsesa].

Baina bazen orduan preserbatiborik?

Bai, baina gauza arraroa zen. Zinez xerka joan behar zen.

Zuen lan hori guzia jin zen bazitekeelako sekulako desinformazioa.

Bai: ez etxean, ez ere etxetik kanpo ez baitzen honetaz deus aipatzen.

Zuen lanari esker, demokratizatu da hori guzia.

Gure lanari esker ez dakit... Hastapen bat izan da, gero medikuek-eta beren gain hartu dituzte.

Tabu bat hautsi duzue.

Bai, hori da. Euskaldun Gazteriak lan gaitza egin du gazteen laguntzeko. Elizak sekulakoa egin du, nahi duenak erran dezala nahi duena; gainean dogmak badira, bai, baina pean bada elkar laguntza.

Zure emazte-ibilbidean, haurtzarotik honaino, zer da bizi izan duzun kanbio handiena onerako? Eta txarrerako?

Nesken eta emazteen tokia zinez aldatu da: plazarat jalgi dira, ofizio eta kargu mota guzietan beren lekua egin dute, gutienetik egiten ari, gero eta gehiago zabalduz.

Zer espektatiba bazen zure haurtzaroan zu eta ahizparen-dako? Sehi joan, esposatzea eta etxeakoanderea izatea? Ala bertzerik bazen?

Ez, hala zen, bai. Sekulako kanbioa izan da horretan.

Ahizpa gazteenendako ere?

Hark ikasketak egin zituen, bai, gaitzeko aldaketa izan zen etxean.

Zer gertatu zen hor? Zu ikasle biziki ona baitzinen.

Ahizpa lagundu nuen diruz eskolatzeko. Etxekoek betidanik nahiko zuketen ikasketak egin genitzan, baina ez zen hurbil egiten ahal, orduan kostatzen zen, ez zen posible.

Balio hori, beraz, sentitu duzu, ez zen determinatua, emazte izateagatik ikasketarik ez.

Etxekoek igorri gaituzte eskolarat ahal izan gaituzten heine-raino. Mutikoak ere. Ahal zena egin zuten.

Zer ikasi zuen ahizpa gazteak?

Fisika eta kimika, gero ingeniaria izan zen.

Fier zarea zure buruaz hala lagundurik?

Normal zen. Zuhaurrek egin ahal izan ez duzun hura ahizpak egitea... Horretan bai, fier.

Ahizpa ikasten hastea berritasun handia izan zena herrian?

Egia da ahizparen lagunek ez zutela ikasi, ez. Ez dut sentitu herrian halako deus eragin zuenik. Hori bai, lehenetarikoa izan zen. Neskak serio-sago ari ziren eskolan mutikoak bai-no. Ahizpa egona da berdin, den bezala, ez da kastaz aldatu ikasketa eginagatik.

Beraz, zuk ezin izan zenuena egin ahizpak egin zuen bezala, izan dea bertze aldaketa handirik?

Baionarat jin nintzelarik lanera, biziki gustuan egon nintzen. Uste dut lan asko egin den gazteendako. Sasoilariak laguntzeko, adibidez [milaka euskaldun abian zen orduan Lurdarat sasoilari gisa]. Formazio bat bazuten diru gehiago irabazteko eta beraien buruak preziazteko.

Formazioa zen ofizioari lotua edo estusari?

Biak. Lurdan bazen omonier bat, [Ttale] Ouret, eta laguntzen zituen gazteak han. Elkarrekin aritu ginen horretan lanean.

NOSTALGIATIK ORAINALDIARI SO

Zer atxikiko zenuke lehengo garaitik? Zer aldatuko zenuke zure gaztaroan? Edo, zerk bozkariatzen zaitu zure arra-alabak ikustean zuk ukan ez zenuenik? Eta, zer ikusten duzu ments dutela zuk ukan zenuena?

«Zertaz damutu behar nuke, ahal nuena eginez gero? Aldian aldikoa egin dut galderei erantzunez.

Zerbait sentitzen nuelarik, elkarte batean sartzen nintzen. Ez nuen ene burua hobendun sentitzen, elkarlanean ari baikinen»

Herrietan bagenuen harreman gehiago, bizi gehiago, elkarlan gehiago. Orain, guk ez dugu herritar bat ikusten hiru hila-betez, berdin. Hor ditugu auzoak, baina telefonoz ari gara! COVID horrek ere dena hautsi du, bakoitza bere etxean... Orain ez da bizirik, orduan gaitzekoa bazelarik. Hor zegoen nukleoa.

Haatik, arra-alabek gure babilioak atxikitzen dituzte: familia, elkartasuna, natura, mendia, pertsona guzien errespetua. Nik ukan nuena eta uste

dudana pasatu diet ahal oroz. Baina guk ukan dugun baino libertate gehiago badute: ene ustez ontsa baliatzen dute.

Zer libertate, konparazione?

Lehenago, bestetatik sartu behar genuen angelusarendako, eta gehienik lauzpabost egiten genituen urtean. Gaueko dantzaldirik ez, bakarrik Donapaleukoak. Zernahi gisaz, bestak goizik finitzen ziren. Amendüzen, hala ere, ez zen angelusari hainbeste kasurik egiten. Batzuetan apeza zen... auzo herrian beha zen angelusaren tenorean ikusteko neskak sartzen zirenez! Beste apaiz batzuek erraten zuten otoitzean ari zirela dantzaldi denboran.

Otoitzean, zertarako?

Egiten zen bekatuen barkatzeko: bekatua baitzen dantzan aritzea! Mariaren Alabek zina egiten zuten ez zirela dantzan ariko... Dantzan ari ziren neskak madarikatuak ziren.

Zer ondorio zuten?

Deus ere, baina besteen aitzinean gaizki ikusia zen.

Presio sozial horrek ekartzen ahal zien bikotekidea atzemateko arazorik, adibidez?

Ez dut uste, ez.

Baduzua damurik? Nahi bai baina ezin izan duzuna oraino egin?

Zertaz damutu behar nuke, ahal nuena eginez geroz? Aldian aldikoa egin dut galderei erantzunez. Zerbait sentitzen nuelarik, elkarte batean sartzen nintzen. Ez nuen ene burua hobendun sentitzen, elkarlanean ari baikin. Indarra ematen du taldean aritzeak. Sintesia egiten duzu ekintzetan, bakoitzak bere maneran ikusten bazuen ere. Gehiago egin behar nukeela? Edo hobeki? Gure mugak onartu behar ditugu, eta besteendako zerbait utzi. Baita militantzia ere, baina ere familiakoa. Ama zaindu behar izan dugu hiru ahizpen

artean, konparazione. Zure haurrak ere behar dituzu altxatu eta lagundu, eta ez zen oraingo tresneria beti. Beraz, hortatik kanpo behar ziren beste arrangura horietaz okupatu.

Tresneria, zein?

Maddi sortu zelarik erosi genuen hozkailua, baina ez zen aski indarrrik Hazparnen martxarazteko! Bakarrik lantegiak hetsiak zirelarik, igandetan zen martxatzen! Ez genukeen hori sekula pentsatuko! Hori gabe, behar dira egun oroz egin komisioak... Pean dugu oraino hozkailua!

Bestalde, niniendako baziren oihalezko xatarren orde zelosak, agertu bezain fite haiek erosi genituen. Ez nuen haiek garbitzerik ukan, beraz. Ez ziren biziki ekologikoak, baina lana errazten zuten, hori segur!

Eta garbigailua?

Pentsatzen dut bigarrenaren alabarendako ukan nuela.

Ezin pentsatuzko lana.

A, hori segur! Hautatzekotan tresna bat, garbigailua litzateke!

Nolakoa litzateke zuretzat ametsetako Euskal Herria?

Euskal Herria bat eta beregain, botere demokratiko batzuekin bere beharrei erantzuteko, euskaraz nagusiki.

Noiz ukan zenuen Euskal Herriko maparen berri: Hegoalde dea noiz deskubritu zenuen euskaldun gisa? Izan dea ebolutuziorik zuretzat: Espainia izatetik Euskal Herria bilakatu dea? Zer harreman ukan duzu Hegoaldearekin?

Euskal Herriko maparen berri goizik ukan nuen Parisen Hegoaldekoekin gurutzatuz, bereziki Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Gero Euskaldun Gazteriak harreman azkarrak bazituen hango Herri Gazteriarekin. Bilkura eta lan franko egin dugu elkarrekin. 🍷

GAIAK

- 73** Zer da zaintza? Imajinazio ariketa bat
Alaitz Uriarte Goikoetxea
Maidar Barañano Uribarri

Zer da zaintza?

Imajinazio ariketa bat

Alaitz Uriarte Goikoetxea

Maidar Barañano Uribarri

Soziologoak eta zaintzaren inguruko ikerlariak

Zaintzaz gero eta gehiago entzuten dugu gure inguruan COVID-19aren pandemiak geroztik. Mugimendu feministak ere bere egin du aldarria, eta joan den azaroaren 30ean zaintza eskubide kolektiboaren aldeko lehen greba feminista orokorra izan genuen Euskal Herrian. Gaia presente dugu, beraz; baina, zer da zaintza? Zeri buruz ari gara zaintzaz hitz egiten dugunean? Eta agian guri garrantzitsuagoa zaiguna, zaintza esatean zer ari gara irudikatzen? Horrek zein ondorio ditu gure praktiketan?

Artikulu honetan zaintzaren iruditeriez ariko gara, baina ez gabiltza definizio baten bila. Errealitate konkretuak sortzen ditu iruditeria bakoitzak, desira eta aritzeko modu ezberdinak; horien artean, eraldatzaileak eta, beraz, baliagarriak zaizkigunak bilatu nahi ditugu. Bestela esanda, jakin nahi dugu nola eta zertarako zaigun bakoitza baliagarri.

Zestoako (Gipuzkoa) zaintza zerbitzuen eta horien eraldaketaren hasieran kokatutako azterlana da hurrengo lerroetan irakurriko duguna. Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzarekin batera martxan jarritako zaintza zerbitzuak antolatzeke eredu aldaketaren baitan kokatzen da ikerketa, Tokiko Zaintza Ekosistema deituriko proiektu pilotuak aurrera eramanez eredu osoaren eraldaketa gauzatzea helburu

duen estrategian. Hala, Tokiko Zaintza Ekosistema Gipuzkoan zehar ezarri da, maila lokalean sektore publikoa indartzeko eta pertsona nagusien, hauskorren eta mendekoen bizi kalitatea hobetzeko, batez ere zaintza etxean jasotzen duten horiengan arreta jarritz. Proiektu pilotu horiek herri bakoitzaren errealitateari loturik jarri dira martxan, ondorioz; forma ezberdina hartzen dute herri bakoitzean.

Ikerketa proiektuaren helburu orokorra Zestoako errealitatearen azterketa bat egitea izan da, zaintzaz arduratzen diren agenteen erradiografia egin, indargune eta ahulguneak identifikatu eta, ondoren, Tokiko Zaintza Ekosistemaren logikara salto egin ahal izateko. Artikuluan zehar, ikerketa prozesuan zehar identifikatu ditugun zaintzaren inguruko diskurtsoak azaleratuko ditugu, Tokiko Zaintza Ekosistema sortzerakoan parte hartzen duten agenteen diskurtsoen berezitasuna eta osagarritasuna identifikatzea ezinbestekoa baita. Hortaz, egungo zaintza sistemaren alternatiba eraiki ahal izateko, Adinekoen Mahaia osatzen duten agenteek zaintzaren inguruan dituzten iruditeriak eta definizioak identifikatzea eta analizatzea izango da artikuluaaren helburua.¹

Nondik abiatu gara?

Feminismotik aspaldi gabiltza zaintzaren krisiaren inguruan teorizatzen eta agenda politikora eraman nahian. Zaintza krisiak (Pérez Orozco 2005, Comas D'Argemir 2014) gizartearen gehiengo gero eta zabalago batera darama zaintzeko eta zaindua izateko zailtasunen areagotzea (Ezquerria 2011). Izan ere, zaintza beharrak handitu diren heinean, ez dira horiek asetzeko baliabideak areagotu. Hortaz, gaur egungo zaintza zerbitzuen jasangarritasuna kolokan dago. Egungo zaintza lanen antolaketa soziala erregimen *familistan* oinarrituta dago; oro har, emakumeen ordaindu gabeko lanaren esku utzi dira zaintza lanak (Saraceno 1995), eta azken urteetan gero eta gehiago zaintza kate globalen bidez kontratatatu dira, *migrante bat familian* ereduari bide eginez (Bettio 2006, in

Vega *et al.* 2018). Krisi egoera da, beraz, gurea; testuinguru horretan, zaintza zerbitzuak birformulatzeko saiakerak egin dira, Gipuzkoan, Foru Aldundiaren eta zenbait udalen eskutik, Tokiko Zaintza Ekosistemaren forma hartu dutenak. Pertsonen eta udalerrri bakoitzaren beharrianak kontuan hartuz, osasun zerbitzuen, gizarte zerbitzuen eta komunitatearen koordinazioa bermatzea dute helburu. Gaur egun Gipuzkoako hamalau udalerritan bultzatu dituzte Tokiko Zaintza Ekosistemak, eta herri horietako bat da hurrengo lerroetan aztertuko duguna, Zestoa.

Zestoak 3.812 biztanle ditu (Gislan 2020), 43,69 kilometro karratutan banaturik; hala, herriaren nukleoaz gain, zeinetan biztanleriaren gehiengoa bizi den, beste sei auzok osatzen dute udalerria. Dispersio demografikoa nabaria da Zestoa, eta, adinarekin nahasten badugu, ikus dezakegu 65 urte baino gehiago duen hiru biztanletik bat baino gehiago (1,14) dispertsaturiko baserrietan bizi dela. Horrez gain, bizikidetza unitateei dagokienez, adineko pertsonen bi heren baino gehiago bakarrik edo adineko beste pertsona batekin bizi dira (Gislan 2021), eta horrek haien zaugarritasun egoera handitu egiten du. Hortaz, pentsa genezake datozen urteetan gehiago izango direla; beraz, zaintza zerbitzuak era deszentralizatuan eskaintzea erronka berezitu bat da Zestoa. Izan ere, Gislanek 2021ean egindako prospektiba demografikoaren arabera, egungo zahartze tasa %19,5ekoa da, eta 2035erako %26,5ekoa izango da. Beraz, zaintza zerbitzuen eskariak gora egingo du ezinbestean.

Testuinguru horretan ari dira garatzen Tokiko Zaintza Ekosistemak, zaintza krisiak gurutzaturik, aldaketa

Zaintza beharrak
handitu diren heinean,
ez dira horiek
asetzeko baliabideak
areagotu. Hortaz,
gaur egungo
zaintza zerbitzuen
jasangarritasuna
kolokan dago

demografikoaren erdian eta eredu justuago bateranzko aukerak ireki daitezkeen une batean. Baina, zer da zaintza? Nola definitzen dugu? Zaintzak jarduera asko hartzen ditu bere baitan, eta modu eta momentu ezberdinetan gertatzen dira; hortaz, zaila egiten zaigu denerako erabilgarria izango den definizio baten mugetan sartzea. Izan ere, zaintzaren definizioa testuinguru eta momentu historikoaren arabera izango da. Hala ere, zaintzaren definizioa eta ulerkerak ikertzea garrantzitsua izango da, gure munduaz ditugun irudikapenek eta gauzez egiten ditugun definizioek gure mundua bera egiten dutelako. Butlerrek (1990) hitzen gaitasun performatiboa esango lioke, hau da, hitzek duten gaitasuna ez soilik errealitatea deskribatzeko, baizik eta eraikitzeko. Hala, diskurtsoa egiten dugu, baina diskurtsoak ere egiten gaitugu, posibilitatearen markoak ezartzen dituelako, esan eta uler daitezkeenaren mugak eta, beraz, baita mundua bera ulertzeko ditugun mugak ere. Beraz, garrantzitsua da pentsatzea «zein pentsamendurekin pentsatzen dugun» (Haraway 2019), zein diren erabiltzen ditugun tresnak pentsatu ahal izateko, zein markotatik, zein lehengairekin pentsatzen dugun.

Izan ere, maila sinbolikoan gertatzen dena ez da mundu materialetik at gertatzen; materialitatearen zati da, haren bidez eraikitzen da eta eraikitzen du, harreman sinpoietikoetan (*ibid.*). Finean, maila sinbolikoa esanahia duen materialitatearen zatia da. Beraz, diskurtsoa zapalkuntza eta dominazio harremanak ezkutatze tresna ere bada, horiek naturalizatuz, ez aipatuz, ezikusiarena eginez, horiek baitira dominazio sistema eraginkorrenak, azaltzeko hiztegiak ez dutenak. Horregatik, zaintzaz ari garela, ezinbestekoa da jakitea nola eraikitzen diren haren inguruko irudikapenak, nork eraikitzen dituen eta zein ondorio dituen. Spivakek (2003) «hitz egin dezake subalternoa?» galdetzen zuen, hau da, zein gaitasun dugu subalternitatetik beste marko bat pentsatzeko? Errealitatea beste leku batetik begiratzeko eta aztertzeko? Diskurtsoa ez baita soilik dominazio harremanak betikotzeko tresna, mundu berriak imajinatzekoa ere bada, arrakalak irekitzekoa; eta

lan hori ezinbestekoa da beste zerbait pentsatu ahal izateko, horretarako tresnak eduki ahal izateko.

Zaintzaren inguruko irudikapenek eragin zuzena daukate norbanakoen ekintzetan, desiretan, politika publikoetan eta abarretan. Beraz, aldaketarako politikak planteatzerakoan ere aztertu behar da zein diren diskurtso horiek, zein egin ahal zaizkigun baliagarriak borrokak artikulatzeko eta zeinek eraman gaitzaketen aterabiderik gabeko tokietara. Diskurtsoak aztertzeko saiakeran, Petersonek (2021) epe luzeko zaintzaren inguruko hiru diskurtso mota identifikatzen ditu ‘Choice, needs or equality? Discursive struggles about defining home care for older people in Sweden’ artikuluan, non etxez etxeko zaintza zerbitzua aztertzen duen. Autoreak identifikatutako diskurtsoak ondorengoak lirateke:

- *Aukeraren diskurtsoa*: zaintza behar duten pertsonak beren interesez kontziente dira eta gai dira eskura dituzten aukeren artean beren nahi eta beharretara ondoen egokitzen diren zerbitzuak aukeratzeko.
- *Beharraren diskurtsoa*: zaintza behar duten pertsonak dependentzia handia duten norbanako gisa agertzen dira, eta zaintza langileak, lan sakrifikatua egiten duten (eta beraz eskerrak zor zaizkien) langile gisa.
- *Eskubideen diskurtsoa*: zaintza behar duten pertsonak eskubidedun subjektu gisa agertzen dira, herritar gisa kalitatezko eta beren beharretara egokitutako zaintza jasotzeko eskubidea duten herritar gisa berdintasunezko printzipioen arabera.

Petersonen hitzetan, diskurtsoak ez dira puruak, pertsonaren beraren esanetan txirikordatzen dira, elkarriketatuek unean-unean justifikatu nahi denaren arabera bat edo beste hartzen baitu. Hala, nahiz eta diskurtsoak ezberdinak izan, markoa bera dela ikus dezakegu, markoek gure pentsatzeko erari forma ematen diotelako eta, horretarako, elementu konpartituak ezinbestekoak direlako. Horrek osatzen du gure zaintzaren ulerkerak eta justifikatzen ditu zaintza harremanetan gertatzen diren zapalkuntza eta esplotazioa.

Nola ikertu dugu?

Artikulu hau Zestoan egindako ikerketa handiago baten zati da. Ikerketa hartan, Zestoako Zaintza Ekosistema garatzeko erak aztertu genituen, prozesuan izan zitzaizkeen aukerak eta erronkak identifikatuz. Artikulu honetan, prozesuan zuzenean eragiten duen dimentsio batez arituko gara, zaintzaren iruditeriaz. Hortaz, ezinbestekoa da ikerketako hautu metodologikoaz aritzea.

Ikerketaren helburuak kontuan hartuta, metodologiarik egokiena ikerketa kualitatiboa dela iritzi dugu, eta metodologia horri jarraiki egin ditugu behaketa, elkarrizketak eta talde eztabaidak. Ikerketaren protagonistak Adinekoen Mahaia osatzen duten agenteak dira (alkatea, gizarte zerbitzuetako langileak, kirol teknikaria, herriko bi egoitzak,

**Zestoako Zaintza
Ekosistema garatzeko
erak aztertu genituen.**

**Prozesuan zuzenean
eragiten duen dimentsio
batez arituko gara,
zaintzaren iruditeriaz**

zahartzararen eta zaintzaren inguruan lan egiten duten bi elkarteak eta zaugarritasunaren prebentzioari buruzko ikerketa eta esku hartzea egiten ari den kanpoko eragilea), eta horrela helarazi ziguten 2021eko apirilean, ekimenaren berri izan genuenean.

Adinekoen Mahaia zaintza ekosistemaren talde motorra dela helarazi ziguten lehen bileretatik, eta horrela identifikatu genuen guk ere lehen bileretan. Ekimenaren jarraipena etengabekoa izan da geroztik; izan ere, bilera formal (bost bilera presentzial eta bi online) eta informalak egin ditugu ikerketa abiatu aurretik. Bilera eta behaketa horietan bildutako informazioarekin, helburu eta ikergalderei erantzuteko, elkarrizketak eta talde eztabaidak egin genituen 2022ko maiatza eta ekaina bitartean. Horiek guztiak literalki transkribatu ziren arren, aipua euskara batura aldatu ditugu artikulu honetarako.

Elkarriketak, jakintza pribatua erabiliz, ikerketa objektu denaren jokabide indibidualaren edo erreferentzia taldearen zentzu soziala eraikitzea du helburu (Blasco eta Otero 2008). Horregatik, Adineko Mahaiaren erakundeetako ordezkari eta langileei egin dizkiegu, hau da: udal ordezkarietako egoitzetako zuzendariei, gizarte zerbitzuetao langileei, eta Zestoan zaurgarritasunaren detekzio goiztiarrean lanean ari den kanpoko eragileari. Alde batetik, elkarriketatuek ordezkatzten dituzten erakundeen erabakiguneak osatzen dituztelako, eta, bestetik, eragile indibidualak direlako.

Talde eztabaidak, aldiz, subjektibotasun kolektiboaren eta taldeko diskurtsoen berri izateko aukera ematen du (Alonso 1998). Horren bidez, bileretara joaten diren pertsonek diskurtso adostua eta homogeneizatzaillea eraikitzea lortu nahi da, talde bakoitzean ordezkatuta dagoen sektore sozialaren adierazgarritzat har daitekeena. Zahartzaroaren eta zaintzaren inguruan lan egiten duten bi elkarteak talde izaera duten agenteak izanik, taldearen diskurtsoa ezagutzeko aukera ematen duen teknika egokiena erabili dugu, talde ordezkaritza indibidualak ekidinez.

Agenteek egindako lana ere balioztatzea eta ikerketaren emaitzak partekatzea helburu, ikerketa eta analisisia egin ostean, eragileei informazioa bueltatzeko eta lortutako emaitzak kontrastatzeko bilera bat egin genuen 2022ko azaroaren 7an. Lehenengo, ikerketaren emaitzak aurkeztu genituen, eta, ondoren, emaitzen inguruan hitz egiteko tarte bat utzi genuen. Bertan, besteak beste, 2023an emaitzen aurkezpen publikoa egitea adostu genuen Zestoako herritarrek egitasmoaren eta ikerketaren berri izan zezaten.

Zaintzaren iruditeriak gorpuztuz

Atal honetan, zaintzaren definizioen analisisian lortutako emaitzak azaleratuko ditugu: Zestoako Zaintza Ekosisteman talde motorreko agenteek dituzten zaintzaren definizio eta iruditeriak. Adinekoen Mahaiko agenteek duten iruditeria

aztertuko dugu, zeina oso loturik dagoen bakoitzak duen zaintzaren idealarekin. Analisi honetan, lau diskurtso edo zaintza definizio identifikatu ditugu.

Lehena *zaintzaren inguruko ulerkerarik zabalena* da, alka-tearena: bizitzaren ikuspegi kolektiboaz hitz egiten du, denon ongizatea bermatzeaz. Hori da hain zuzen udalari ezartzen dion helburua ere, biztanleen beharrei erantzutea, biztanleen ongizatea bermatzeko pausoak ematea.

Zaintzan dena sartzen da. Igual momentu honetan zaintza ulertzen dugu ba, bueno, adinekoen zaugarritasunarekin lotuta. Baina klaro, zaintzan dena dago... Zaintzan dago ba, elikadura: zer jaten dugun... Zaintzan dago, ingurumena: ingurumena nola zaintzen dugun, eta, garai honetan, larrialdi klimatikoko argi gorriak piztuta dauzkagunean, eta orduan da, herri bezala, nahiz eta gu herri txiki bat izan, gure ekarpena gure buruari eta gainontzeko humanitateari da, lehen esan dudana: ahalik eta baldintzarik osasuntsuenak sortzea, ahalik eta ondoen bizitzeko. [...] Zaintza lotzea... Edo larrialdi klimatikoari edo energiarekin... eta, eta, elikadurarekin ere [...] Niretzako zaintza da, ia, gure herriko harremanak ikuspegi kolektibo batetik antolatzea. (Alkatea)

Larrialdi klimatikoaz, elikaduraz eta kolektiboaz hitz egiten du Zestoako alkateak zaintzaz galdetuta. Zaintzaren ikuspegi zabal horrek posible egiten du, alde batetik, zaintzaren inguruko lanketetan irakurketa estrukturalak egitea, zaintza beste fenomeno konplexu batzuekin lotzea; eta, bestetik, modu batera edo bestera, udalaren edozein programatan ikuspegi horretatik lan egin ahal izatea.

Bigarrenik, Zestoako alkateak egiten duen definiziotik urrun, A egoitzako zuzendaritzaren eta A elkartearen diskurtsoa dugu. Beren zaintza eredu idealaz galdetuta, ez dute zalantzarik egiten:

[Zuzendariordea]: Unibertsala izan behar du.

[Zuzendaria]: Publikoa.

[Zuzendariordea]: Publikoa. Bertatik bertakoa.

[Zuzendaria]: Gertukoa.

[Zuzendariordea]: Gertukoa.

[Zuzendaria]: Lan baldintza duinekin. Bizi garen komunitatean zerbitzu euskalduna izan behar du. (A egoitzako zuzendaritza)

Denontzat, elkarrekin, zerbitzu publikoa sartuta [...] Hor langileria gaizki tratatuta dago. Lehen aipatu duzue orduena, ze mugimendu dagoen orduetan. Eta ze lan karga jartzen zaien. Ez da kontuan hartzen langilegoa, erre egiten dira! (A elkarteak)

Diskurtsoak Petersonek (2021) *eskubideen diskurtso* deitutakoaren antz handia dauka, bai langileak eta bai erabiltzaileak eskubidedun subjektu gisa irudikatzen dituenak. Hala, zaintza jasotzen duten pertsonen zaintzarako eskubidea daukate herritar eskubidedun diren neurrian, eta horregatik da haientzako garrantzitsua.

Publikotasunaren eta berdintasunaren diskurtsoaz gain, gertutasunarena ere badauka. Zentzu horretan, lurralde konkretuetako errealitatera moldatzeko gaitasuna du, baita norberarenera ere. Horretarako, A egoitzako zuzendaritzak egoitzen arkitekturan eta azpiegiturretan eraldaketak egiten hastean jartzen du fokua, makrozentrotatik gertuko zerbitzuetara bilakaera egiteko; honela azaltzen dute:

Eta azpiegiturak makrozentro, ez dakit ze, ez. Hori hautsi eta eremu txiki, gertukoaren alde jo, ez? Auzo bakoitzean [...] ba zentro txiki bat, ez dakit, ba bere zerbitzu batzuekin. (A egoitzako zuzendaritza)

A elkarteak, aldiz, herrian bizi eta zaintzeari ematen dio garrantzia, gertutasunari, bizitzaren amaiera Zestoa proiektatuz:

Bertakoak, ez? Ekosistema horrek adierazten du nahi dugula Zestoa bertan bizitzea eta bertan zainduak izatea, ez? Bertako ekosistemarekin. Labur esanda. (A elkarteak)

Beste elkarriketa batzuetan ere agertzen dira ingurukoetiko loturak eta pertsona bakoitza bizi den komunitate horretako loturak. Esaterako, kirol teknikariak elkarriketa osoan zehar aipatzen du zaintzaren inguruan hitz egiterakoan. Sozializazioa, harremanak, horiek dira zaintzaren ardatza berarentzako, eta bi elkarteek egoitzekin batera egindako *Zestoa Osasuntsu* proiektuak ere hori du ardatz:

Pixka bat bultzatzen duzu pertsona horiek, bueno, aitzakia edukiko dut, buelta bat emango duzu, herriko beste jendearekin hitz

egin, eta hamaiketakoena oso inportantea da bukatutakoan. Ez da hainbeste jatearena, baizik eta mahai horren bueltan ere bakarrik etortzen dena, animatzen dena... Ba begira! Mokadutxo bat hartu, hitz egin.... Aldi berean uztartzen dira bi gauzak, direla ariketa fisikoa eta harremantze sozial hori. Hori oso inportantea da. (Kirol teknikaria)

Hirugarren definizio horrek komunitateko, auzoko eta herriko harremanei ematen die garrantzia; zaintza erlazionala da eta egunerokotasunean garatzen da, ekintza txikietan aurkituko dugu. Ulerkera hori *zaintza eguneroko ekintza txikietatik* izendatu dugu. Zentzu horretan, kirol teknikariaren antzera, B elkarteko kideek zaintza zer den definitzen dutenean, *Zestoa Osasuntsu* proiektua aipatzen dute, zaintza mota bat dela aldarrikatuz.

Zaintza da bakoitzari behar duena eskaintzea behar duen momentuan. Eta horretan dihardugu. [...] Eta guk egiten duguna zaintza mota bat da. [...] Ibilaldiak zaintza mota bat dira. (B elkartea)

Kanpoko eragileko langileak ere harreman sozialak mantentzearekin eta eguneroko ekintzekin lotzen du zaintza. Izan ere, zaintzaren eta zahartzaroaren irudi ideala zahartzaro aktiboarena da berarentzako, eta, horretarako, beste pertsona batzuekin egotea eta horiekin harremana mantentzea ere garrantzitsua da. Era horretan, harreman sozialak zoriontasunarekin eta bakardadea tristurarekin lotzen ditu: «konpainian, jendearekin egoteko, bakarrik ez egotea, bestela tristura batean sartzen zara» (kanpoko eragileko langilea).

Azkenik, zaintzan indibidualizazioaren joerarekin bat eginenez, *persona ardatz duen arreta ereditik* eratorritako diskurtsoa dugu. Zaintza eredu horretan, zaintza jasotzen duen pertsonak hartzen du erdigunea, haren bizi proiektuak, nahiek eta ohiturek, helburua haren bizi kalitatea eta autonomiaren garapena izanik (Eusko Jaurlaritza eta Matia Fundazioa 2014). Antzeko diskurtsoa dute B egoitzako zuzendariak zein gizarte zerbitzuetako langileak, pentsa genezake biek dutela *persona ardatz duen arreta ereduaren* berri.

Biek azpimarratzen dute komunitatearekiko lotura eta, horrekin batera, zahartzaro aktiboaren garrantzia; eta, horrez gainera, indibidualizazioaren nozioak garrantzitsuak iruditzen zaizkie zaintza antolatze aldera. Zaintza jasotzen duten pertsonak beren erabakiak errespetatzeko eta egin nahi duten hori egiteko duten eskubidean jartzen du arreta, eta horrela imajinatzen dute beren zahartzaro propioa:

Bueno, niri gustatuko litzaidake aurrena nire... zera, indibidualizatu izatea. Egotea lehenengo gauza pertsona bat nire iritzia kontuan hartzen. Niri galdetzea zuzenean ba gaur zer egin nahi dudan edo non gustatuko litzaidakeen parte hartzea nire adina eta nire dependentzia ikusi gabe. (B egoitzako zuzendaria)

Zu joaten baldin bazara..., ez dakit, edo egoitza batean ba gela bat ematen dizute, ba zuk aukera eduki dezazun gela hori zure gustura jartzeko, ez? Edo nahi baduzu pintatu, edo nahi baduzu... ez dakit. Edo ze nahi duzun ba... biharko edo zer nahi duzun jarri, ba erabakitzeo aukera hori edukitzea. Ba askotan ba galdu egiten dira. (Gizarte zerbitzuetako langilea)

Jakina, B egoitzako zuzendariaren eta gizarte langilearen diskurtsoetan, norberaren nahiak beteko diren espazioa etxea da. Etxea da zaintzaren zentroa eta zaintza jasotzen duten pertsonak nahi dutena.

Ahal den bitartean etxean, bakoitza bere etxean mantentzea baldin badago... Mantendu daitekeela beharrezko apoioarekin. (Gizarte zerbitzuetako langilea)

Eta etxean... etxeari eman protagonismo gehiago. Etxean nahi dugu izan zainduak gehienak. (B egoitzako zuzendaria)

Laburbilduz, esan genezake lau irudikapen direla nagusi zaintzaz hitz egiterakoan:

- Lehenik, *zaintzaren inguruko ulerkerarik zabalena*, batez ere Zestoako alkateak duena.
- Bigarrenik, *eskubideen diskurtsoa*, batik bat A egoitzako zuzendaritzak eta A elkarteak defendatzen dutena.
- Hirugarrenik, *zaintza eguneroko ekintza txikietatik* begiraten dutenena; kanpoko eragilea, B elkarte eta kirol teknikaria lirarteke ikuspegi hori hartzen dutenak.

- Azkenik, *pertsona ardatz duen arreta ereduaren* eta aukeraren diskurtsoaren inguruan dabilena, eta B egoitzako zuzendariak eta gizarte zerbitzuetako langileak darabiltena.

Horrek ez du esan nahi agente bakoitza diskurtso horietako batean itxirik dagoenik; diskurtsoak ez dira puruak, agente bakoitzarengan pisu handiena duena zein den besterik ez dugu adierazi. Gainera, ikerketan zehar ikusi dugunez, diskurtsoak osagarriak dira, eta Zestoako errealitate askotarikoaren isla ere badira. Zestoako Zaintza Ekosistema sortzeko bidean beharrezkoak izango diren begiradak dira, ekosistemaren oinarriak sortuko dituztenak.

Ondorioak

Zestoan egindako ikerketaren ondorioak aurretik azaldutakoaren ildotik doaz; izan ere, Zestoako Zaintza Ekosistemaren garapenerako baliagarria izateko helburua du anali-

Zaintza ekosistema
eratzeko, egoera
ezberdinetarako
erabilgarria izango
zaigun definizio bat
beharko dugu, eta
ezinbestekoa izango
da definizio horretara
dimentsio eta begirada
desberdinetatik heltzea

si honek. Zaintza ekosistema garatzeko prozesuan eta egin nahi den aldaketa estruktura-lean kontuan hartzekoa baita agente bakoitzak etengabe birsortzen duen diskurtsoa. Argi geratu da zaintzaz egiten diren definizioak dimentsio eta hurbilpen ezberdinetatik egiten direla. Agente bakoitzak, bere esperientzia propioagatik, betetzen duen eginkizunagatik edota zaintzaz duen iritziagatik, toki ezberdin batetik irudikatzen du zaintza.

Horrek argi uzten du kontzeptu poliedrikoa dela, esanahi ezberdinak dituela; baina, era berean, Adinekoen Mahaia osatzen duten agenteek eman dizkiguten zaintzaren inguruko

perspektibak bateragarriak ere badira. Hemendik aurrera, aktoreek horietan lan egiten jarraitu beharko dute definizio konpartituak eraiki ahal izateko. Zaintza ekosistema eratzeke, egoera ezberdinetarako erabilgarria izango zaigun definizio bat beharko dugu, eta ezinbestekoa izango da definizio horretara dimentsio eta begirada desberdinetatik heltzea.

Ondorioetan aurreratu dugunez, definizioetan eta horien osagarritasunean lan egiten jarraitu beharko dute zaintza ekosistemaren oinarria eraikitzeke. Izan ere, agenteen diskurtsoen osagarritasuna zaintza ekosistemaren eraketaren gaikoetako bat izango dela nabaritu dugu. Horrez gain, 2023ko martxoaren 9an aurkezpen publikoa egin dugu Zestoan, agenteei eta herritarrei ikerketaren berri emateko. Bertan, zaintzaren definizioak ez ezik, agenteen harremanak, Zestoa-ko zaintza ereduaren ahulgune eta indarguneak eta zaintza ekosistemaren proiektzioa aurkeztuko ditugu. Aurkezpenak, horrela, prozesuan zehar bildutako datuak eta informazioa herritarrei helaraztea izan du helburu, zestoarrak zaintza ekosistemaren eraketan parte hartzera animatzeko eta egungo zaintza ereduaren alternatiba gisa irudikatzeko. 🌸

Oharrak

1. Zaintzaren iruditeriak eta definizioak identifikatzeko, autoreen GRAL eta MALeke elkarrizketa eta eztabaida taldeak berreskuratu eta analizatu dira. Finantziazioari dagokionez, Zientzia eta Teknologia Ministerioak ikerketa zabalago baten baitan egindako ikerketa da: *ECOEMBEDDEDNESS. Cambiando los paradigmas: prácticas y discursos de las economías transformadoras en un contexto de urgencia eco-social* (laguntza: PID2019-106757GA-I00; finantzaketa: MCIN/AEI/10.13039/501100011033). Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren (erreferentzia: SUBDIR22/17) eta Zestoako Udalaren laguntza ekonomikoa ere jaso du. Gainera, Iker-Gazte kongresuan Euskal Herriko garapenean eragin handiena izandako ikerlanaren Udalbiltza saria jaso du.

Bibliografia

- Alonso, Luis Enrique (1998): *La mirada cualitativa. Una aproximación interpretativa*, Madril, Fundamentos.
- Bettio, Francesca; Simonazzi, Annamaria; Villa, Paola (2006): 'Change in care regimes and female migration: The 'care drain' in the Mediterranean', *Journal of European Social Policy* 16(3), 271-285.
- Blasco, Teresa; Otero, Laura (2008): 'Técnicas conversacionales para la recogida de datos en investigación cualitativa: La entrevista (1)', *Nure Investigación* 33.
- Butler, Judith (1990): *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*, Bartzelona, Paidós.
- Comas d'Argemir, Dolors (2014): 'La crisis de los cuidados como crisis de reproducción social. Las políticas públicas y más allá', in Askoren artean: *Periferias, fronteras y diálogos. Actas del XIII Congreso de Antropología de la Federación de Asociaciones de Antropología del Estado Español*, Tarragona, Universitat Rovira i Virgili, 329-349.
- Eusko Jaurlaritz; Matia Fundazioa (2014): *1. Koaderno. Pertsonarengan oinarritutako arreta. Zertan datza arreta-eredu hau?*, Eusko Jaurlaritz eta Matia Fundazioa.
- Ezquerria, Sara (2011): 'Crisis de los cuidados y crisis sistémica: la reproducción como pilar de la economía llamada real', *Investigaciones Feministas* 2, 175-194.

- Gislan (2020): *Zestoako adinekoen azterketa demografikoa*, Andoain, Gislan.
- (2021): *Zestoako adinekoen azterketa demografikoa. Bigarren fasea*, Andoain, Gislan.
- Haraway, Donna J. (2019): *Seguir con el problema. Generar parentesco en el Chthuluceno*, Bilbo, Consonni.
- Pérez Orozco, Amaia (2005): 'Amenaza tormenta: la crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico', *Revista de Economía Crítica* 5, 7-37.
- Peterson, Elin (2021): 'Choice, needs or equality? Discursive struggles about defining home care for older people in Sweden', *Ageing and Society* 42(10), 1-21.
- Saraceno, Chiara (1995): 'Familismo ambivalente y clientelismo cegórico en el Estado del bienestar italiano', in Luis Moreno Fernández eta Sebastián Sarasa Urdiola (koordk.): *El estado de bienestar en la Europa del Sur*, Madril, CSIC, 261-288.
- Spivak, Gayatri (2003): '¿Puede hablar el subalterno?', *Revista Colombiana de Antropología* 39, 297-364.
- Vega, Cristina; Martínez-Buján, Raquel; Paredes, Miryam (2018): 'Introducción. Experiencias, ámbitos y vínculos cooperativos para el sostenimiento de la vida', in Cristina Vega, Raquel Martínez-Buján eta Myriam Paredes (argk.): *Cuidado, comunidad y común. Experiencias cooperativas en el sostenimiento de la vida*, Madril, Traficantes de Sueños, 15-50.

EGUNEN GURPILEAN

91 Kultura

Bizitza non da
Berriz min hau
Denok zaurgarri kontrakoa frogatu arte
Beste behin
Shu Otero

98 Glokalia

Emisio gutxiko eremuak
Elektrifikazioaren mugak eta klase soziala
Abiadura eta askatasuna
Emisio altuko gizartea
Joanes Igeregi Santamaria

105 Historia

Izar suizidak
Terenci Moix
Txillardegi
Cira Crespo



Bizitza non da

Duela aste batzuk gertatu zen. Txikitatik izan dudan gaixotasun kronikodunontzako baliabideak eskaintzen dituen el-karte baten bitartez kontaktatutako psikologa batekin saioan nengoen, online. Ulertezina egiten zitzaidan insistentzia batekin galdetzen zidan ea zenbatero ateratzen nintzen ka-lera, kafe bat hartzera espezifikoki, momentuan pairatzen ari nintzen antsietate eta ezinegonarentzat erremedio trans-zendentala izango balitz bezala. Galdetu nionean ea zergatik halako garrantzia kanpoan edo barruan egote horri, erantzun zidan: «Bizitza kanpoan dagoelako».

Kronikoki fatigatua eta ohetik ezin altxatu egotera aspal-ditik ohitua nagoenez gero, bertatik bizi ugari eta askotari-koak asmatu, imajinatu eta haragiztatzen, ebazpen hori ez zitzaidan bereziki lasaigarria ezta lagungarria ere iruditut. Ez nuen profesional horrekin beste saiorik agendatu. Baina hurrengo egunetan buruan bueltaka jarraitzen zuen esaldiak, kolektiboki 'postpandemiko' deitzea erabaki diogun garai honetako irrealitateak hiru hitz horietan daukan erresonan-tzian pentsatzen.

Izan ere, kapazitismoaren erasoaldiari hala moduz aurre egiten gabiltzanontzako bereziki, ez da galdera makala ea 'bizitza' non den. Non sortu, non heldu, non bizigarri egin. Azken urteotan erantzuten zailagoa bihurtu den galdera ematen du, orokorrean, eta inguruko jendearengan topatzen dut ondoez horren arrastoa behin eta berriz. Ez dugu ahaztu behar 2020an Espainiako Estatua *per capita* medikamentu antiololitiko, hipnotiko eta lasaigarrien legezko kontsumo

tasa altuena zuen herrialdea izan zela, urteetan zehar agudo hazten doan joera.

Eta zuei ere ez al zaizue iruditu urte bereziki goibela, pasa den hori?

Arrazoiak ez dira falta, arrazoiak ez dira inoiz falta izan. Baina iritzi nahiko zabaldua dela dirudi denboraren gurpilean momentu bereziki baxu bat bizitzen ari garela. Apenas hasi gara zehazten desesperantzak, desegonkortasunak eta datorrenarekiko ziurgabetasunak ezaugarritutako garai honek haragi zein espirituan (eta nork esan ahal du zehazki zein den diferentzia?) eragin dituen efektu eta sekuelak. Ageria da hori ‘kanpoan den bizitza’ horretan murgilduta dabilTZanentzako, Virginia Woolfek ‘zutituen armada’ zeritzon horrentzako. Kronikotasun eta zaurgarritasunaren bestaldean gaudenontzako, espezifikoki eta zalantzarik gabe, are zailagoa oraindik gure minen formak argitzen saiatzea, hain azkar ahaztuak, baztertuak, betiere konfinatuak, eta geroz eta sakonagoak.

Nire bizipen partziala izango da, agian, baina badirudi gutako geroz eta gehiagok nahiko agortuta daukagula atsekabe horietan murgilduta bizitza aurrera ateratzeko moduak asmatzeko gaitasuna. Geroz eta gehiago, norbaitekin topatu eta, edozein elkarriZketa, edozein eztabaida, edozein ekintza abiatu baino lehen, beharra sentitzen dut momentu bat hartu eta elkarri galdetzeko:

Lagun, ondo al zaude?

Berriz min hau

Zer itxura izan du azken urteotan zuen ‘normalitate berriak’? Lehengoaren antza dauka? Zertan jo du hobera, eta non txarrera? Nola lortzen duzue han ‘kanpoan’ hiperestimulu eta kontraesanen laino artean bidea irekitzea? Nola lor daiteke ‘barruan’? Eta, ‘kanpoa’ errekuPeratzeko presa horretan, iruditzen al zaizue agian merezi zuela zerbait guztiz desberdina

egiten saiatzea? Sentitzen al du inork aukera galdu baten pisua erraietan?

Eta ez pentsa galdera horiek egiten ditudalako isolazionismo pandemiko zurrunaren nostalgikoa naizenik, edo ez dudarik ulertzen zer duen erakargarri normalitatearen doinuak, ezagunaren baltsamoak, zein ezinezko dirudien alaitasun konpentsatzaile txikienari ere uko egitea, ezezagunaren iluntasunean barneratzen ausartzea. Nik ere presa izan nuen behin baino gehiagotan ‘kanpora’ ihes egiteko, bestearen beroa eta azala berriz ere sentitzera, jatetxe eta tabernetara, musukoa etxean utzi eta kafea toki epel batean hartzera joateko (nahiz eta ez egin osasun mentalaren profesional batzuek egokia deritzoten maiztasunarekin). Nik ere nahi izan dut, munduaren arazo etengabeen artean, gutxienez bati bolumena jaitsi eta, pixkanaka, ahazten joan. Nik ere nahiko nuke kaleko arnasa biriketan hartu berriz ere modu indiskriminatuan, iragazkirik gabe, Sophie Strandek bezala materia nahasiarekin bat egin eta sendo adierazi, «*I WILL NOT BE PURIFIED*» (Ez naiz purifikatua izango).

Nik ere nahi nion utzi egunkariak goizero elementu ulergarrietan desegiten saiatzeari eta alderatu eta konprobatu eta medizina eta farmazeutika eta politika publikoak eta heriotza tasak eta COVID luzea eta barianteak eta sekuelak eta txertoak eta heriotzak eta heriotzak...

Nik ere, hilabeteotan ‘berri’ deitzen diegun ‘Gaza’ hitzaren alboan iristen diren etengabeko heriotza-oharrekin gertatzen den bezala, hildakoak kontatzeari utzi nahi nion. Nik ere ikasi nuen ez kezkatzen eta kontagioa maitatzen.

Beste era batera esanda, erresistentzia gutxieneko bidea ibilitakoa naiz. Zutituak baino apur bat motelago, zutitua-goak baino apur bat gutxiago, baina azken finean desgaitu guztiok izan dugu beti ‘kanpoan’ existitzeko aukera gutxiago, eta nik beste askok baino apur bat gehiago izan dut. Ez da ezer berririk, ezta?

Azkenean, niri ere lotsa eman izan dit musukoa erabiltzen jarraitzea, badirudienean, lehen ezinbesteko zaintza keinua

zena, ingurukoentzat oroitzapen desatsegina besterik ez dela bihurtu. Lehen baino apur bat bazterrerago, apur bat baka-rrikago, apur bat nekatuago, baina gehienbat ‘normalitatez’ betetako errutinak berrezarri dira, ia denontzat (eta esateko ugari atzeman beharko genuke ‘ia’ horren atzean).

Baina azkenaldian iritsi da, niretzat behintzat, atzera in-dar berriz begiratzeko momentua, konfinamenduen garaiko autoritarismo zein kapazitismo distopikoak, zenbait ezbehar pertsonalekin batera, sorgortutako haragi-espiritua berpizten doan heinean. Begirada argitzen saiatu, aspaldi alde batera utzitakoetara itzuli eta lainoaren bestalde berriz ere lehengoa, urrundu nahi izanekoa topatu: mina.

Entzuteari eta irakurtzeari utzi nien desgaitu eta gaixo kro-niko diren idazle, pentsalari, dibulgatzaile, youtuber, artista eta abarren mina. ‘Kanpokotik’ guztiz baztertuak gelditu direnen mina. Behingoz zaurgarritasuna benetan zentroan jartzea posible zela sinesteari utzi diotenena mina. Betirako gaixotu eta desgaituta (ni bezalaxe) gelditu direnen mina. Entzuteaz aspertu ginena errepikatzen jarraitu behar izan dutenen mina, hil ala bizikoa den borrokan jarraitzen du-tenak, bitartean ospitaleak kolapsatuta eta zaintza-sistema ofizial zein autonomoak aspaldi ahaztuta.

Etsipenaren mina, ikusi dugulako nola ez ginen eta ez garen gai izan ibili behar zen bidea irekitzeko, irisgarria eta zabala. Isolamendu amaigabea zein sozializazio zakarra onartu ezinaren mina, kanpoaren eta barruaren gerra, erdi-bideko, bestelako, sendo sustraitutako bizitza bat sortzearen ezintasunarena. Garaiairen hondamendi eta nahasmendua-ren mina.

Morala eta ortodoxiak alde batera utzi eta min horri es-pazioa emateko zereginean nabil paragrafo hauetan, hori da gauzatzen saiatzen ari naizen ariketa. Eta, begirada horre-tatik, laino horren kausa zein efektu bezala agertzen denik, galdetzen dizuet: zein forma hartzen ditu gaur gure minak eta nola egiten diogu aurre?

Denok zaugarri kontrakoa frogatu arte

Pasa den abenduan, CNT sindikatuaren egunkarian, Leonor Silvestri pentsalari, idazle, gaixo kroniko argentinarrak idazten zuen:

Lurrari arnasaldi bat emateko aukera izan genuen eta, lehortea-
ren ondoren euriarekin birsortzen den lorategi bat bezala, ber-
datzen utzi gure gelditasun eta atsedenaekin, gure kontsumo eta
produkzioaren abstinentziarekin.

Sistema immune konprometituarekin, isolamendu ia oso-
tik behatzen eta idazten jarraitzen du, izan zitekeenari eta ez
denari buruz, besteak beste.

Gelditu, egiteari utzi, kanpoko birpentsatzeko aukera
emango digun barrukotasun bat sortu, bizitzeko modu eta
aukeren ezagutza zabaldu, dibertsifikatu, aberastu. Barruko-
tasuna kanpoarekin modu berrietan konektatu, zuloak ireki,
espazio publikoa pribilegio immunitariotik askatzen joan,
espazio pribatuak politizatzeko era berriak ezagutu. Pande-
miaren bizipena elkar zaintzarako tresnak asmatu, gurega-
natu eta zabaltzeko abiapuntu bihurtu, narratiba propioak
sortu, alarmismo zein tanatopolitikarentzako arma bihurtzen
utzi orde. Denok pixka bat prestuago ondokoa zaintzeko,
batzuk denongandik zaindu behar ez izateko.

Ez soilik ez dugula lortu geldotasunaren eta zaugarritasu-
naren iraultza hori modu eraginkor batean gauzatzea, baizik
eta kontrakoa gertatu izana. Zaintzara eman eta sozializazio
'normaletik' erretiratzera bideratutako bizi-proposamena
egoera guztiz gorrotagarri, jasangaitz, biziezina dela ondo-
rriotatu izana gizartearen gehiengoak (eta egoera horretan
kronikoki bizi direnei galdetzeko saiakerarik egon al da?).

Tristeagoa da 'normalitate' postpandemikoa, aktiboki bo-
rrokatu baikenuen betiko infernu horren alde, bizitzeko era
berri bat gauzatu ezin izanagatik.

Hemen ikusten dut nik ahul eta zaugarri ezagutzen garen
askoren minaren formetako bat: Johana Hedvak *Sick Woman*

Theory-n (Emakume gaixotuaren teoria) iragarritako gaixotuen greba amaiezina gauzatzeko aukerak esku artetik alde egin digula jakitearen atsekabea. Are gehiago, aukera hori inoiz existitu denik ere egunero ezeztatzen dela ikustea. Berdin gorputzaren zaurgarritasuna imajinatzeko gai ere inoiz izan ez diren negazionistek zein zuzentasun politiko txer-tozalearen zaindariak, musukoa eramateagatik ero deituko zaituztenak lehen ez eramateagatik egiten zuten bezala.

Beste behin

Beste negu bat ospitaletako itxarongelak gainezka, musukoen erabileraren derrigortasunarekin aurrera eta atzera, osasun sistema publikoaren kolapsoaren erdian. Fatiga pandemikoa ez zen ezer asko izan fatigatu profesionalontzat, baina zein indibiduala, zein zibiko eta desaragiztatua zaurgarritasunarekiko harreman soziala, zein menderatua, zein gatzgabe eta nekagarria.

Duela gutxi herriko farmazian sartu zen auzokidea, botikaria eta biok musukoarekin ikusterakoan, sumindutako hasperen batez kexatzen zen, «Berriz ere derrigorrezkoa al da hau?», eta hori izango da inguruan gaiari buruz entzungo ditudan iritzi guztien tonua.

Zapatistek aspaldi zabaldu zuten mezua, aurpegia estaltzea aldi berean ikusgarri eta ikusezin bihurtzeko bidea izan daitekeela. Duela gutxi ospatu zuten beren 30. urteurrena, hamarkadetan zehar zaintzaz eta autodefentsaz babestu dituzten komunitateetan, betiere eraso bortizpean aurrera egiten. Eta zein etsigarria ikustea zer gutxitarako gauden prest hemen 'kanpoan', zein urria gure zaintza eta autodefentsaren lengoaia, zein hondatua.

Eta minetik aritzeko proposamena egin dudanez, amaitu dezagun honekin:

Bizirik egoteko eta egin behar dena egin ahal izateko komunitate faltaren mina, indibiduorik gabeko bakardadea eta

sozializaziotik haragoko elkartasuna topatzeko ezintasunaren zauri irekia, errailetako galdera, sustrai izoztuena, berdatzeko euri faltaduna.

Minetik sortzen dira galderak eta minetik erantzun behar-ko dira. Bizirik dagoen zerbait sortuko bada, ez du ezagutzen dugunaren itxura izango, baina zaurgarri ezagutu beharko da, bizi den oro bezala. Ezezagunarekin eta zauriarekin adiskidetu arte, jarraituko du triste izaten bideak. 🍷



Emisio gutxiko eremuak

Zerbait mugitzen dabil mugikortasunaren arloan. Hemendik gutxira, ibilgailu kutsagarrienek sarrera mugatua izango dute Euskal Herriko hiri handietan. Izan ere, Europako Batasuneko zuzentarauek eta estatuetako legeek behartuta, emisio gutxiko eremuak (EGE) ezarri beharko dituzte, beranduenez, 2025erako. Neurriak Hego Euskal Herriko 50.000 biztanletik gorako udalerriei eta Ipar Euskal Herriko 150.000 biztanletik gorako aglomerazioei eragingo die. Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Donostia, Barakaldo, Getxo, Irun eta Lapurdiko kostaldeari, beraz.

Helburu bikoitza dute EGEEK, klima aldaketa arintzea eta hirietako airearen kalitatea hobetzea. Lehen helburuari dagokionez, garraioak sortzen du munduko berotegi efektuko gasen laurdena, eta garraio emisioen hiru laurden errepide bidezkoak. Bestalde, hirietako airearen kutsadurak 1,8 milioi lagun hiltzen ditu urtero munduan. ISGlobal ikerketa zentroaren arabera, OMEk gomendatutako $PM_{2,5}$ eta NO_2 mailak beteko balira, 205.000 heriotza goiztiar ekidin litezke Europan, 1.600 inguru Euskal Herrian. Berriz diot, urtero. Zilegi da, beraz, hirietan ibilgailuen joan-etorria mugatzea. Batzuek, askatasunaren izenean, muga oro kritikatu arren, auto pribatua erabiltzeko askatasuna ezin da egon aire garbia arnasteko edo klima bizigarria izateko eskubidearen gainetik.

Kritika beste ikuspegi batetik egin beharko litzateke, nire ustez. Ekin aurretik, ikus dezagun zer-nolako neurriak aurreikusten diren Euskal Herriko hirietan. Oro har, orain arte ezagutzera eman diren ordenantza proposamenetan, ibilgailu batzuei hirien erdigunean sartzeko debekua ezarri

nahi zaie, haien antzinasunaren eta teknologiaren arabera. Hau da, EGEak indarrean sartzen direnean, 2006aren aurretik matrikulatutako gasolina autoek eta 2014 aurreko dieselek ezingo dute hirien erdigunean sartu. Faconauto patronalaren arabera, EAEko ibilgailuen %62,3ri eragingo lioke debekuak. Matrikulak irakurtzeko kamerak jarriko omen dira, errekuntzako auto zaharren sarrera kontrolatu eta isunak jartzeko.

Egoera horretan, ahal dutenek auto berria erostea erabaki dezakete, askok bestelako garraiobideetara joko dute, eta besteek EGEetara ez sartzea erabaki dezakete, trafikoa handik kanpo lekualdatuz. Bitartean, errekuntzako auto berrien, elektrikoen eta hibridoen jabeak lehen baino lasaiago ibiliko dira hiriguneetan. Neurri leungarririk ezean, beraz, emaitza bikoitza aurreikus dezakegu: hirietako airearen kalitatea, zarata eta bizigarritasuna hobetzea, bai, baina zirkulazio motorizatua aberatsen pribilegio bihurtzea ere bai. Kutsatzen duenak ordain dezala dioen irizpideari buelta emanda, galdetu genezake ea ordaintzen duenak kutsatzeko eskubiderik duen. Are gehiago jakinda munduko %10 aberatsenek kutsaduraren erdia eragiten dutela. Berrikuntza teknologikoak eta efizientzia hobekuntzek oso gutxitan konpentsatzen dute kontsumoaren igoera.

Kontua ez da bakarrik EGEen ondorioak anibalenteak direla, ekologikoki positiboak baina sozialki gatazkatsuak; kontua da ingurumen emaitza hobeak lor litezkeela gizar-te arrakalak handitu gabe. Ingurumen etiketen araberrako debekuen ordeaz, dagoeneko badaude auto kopurua klase bereizketarik gabe mugatzeko hainbat neurri: errepideak txikitzea, oinezkoen guneak ugaritzea, aparkalekuak kentzea, gehieneko abiadura murriztea... Ausardiaz jokatuta, neurri horiek sakondu eta heda litezke, helburu nagusitzat hartuta auto eta kilometro kopurua txikitzea, ibilgailu eraginkorragoak izatearen gainetik. Guztiei berdin ezarritako neurriek, sozialki bidezkoagoak izateaz gain, kamera, polizia eta kontrol dorre gutxiago eskatzen dute arauak betearazteko.

Elektrifikazioaren mugak eta klase soziala

Mugikortasunaren arloan, krisi ekologikoak eragingo dituen gainerako lurrikaretan bezala, ematen du erakunde publikoen eta botere ekonomikoen apustu nagusia, ia bakarra, berrikuntza teknologikoa dela. Erregai fosilen ordeztarriak, errekuntzako autoen ordeztarriak. Hori, konponbidearen parte izanda ere, ezin da konponbide osoa izan.

Batetik, ez dira txikiak auto elektrikoek kalte ekologikoak, batez ere materialen erauzketan eta ekoizpenean. Ibiltzean ere, gure hirietako autobus elektrikoek kontrakoa aldarrikatu arren, ez dute zero emisio eragiten, elektrizitate gehiena zentral termikoetatik datorkielako. Gaurko mix energetikoarekin, auto elektriko batek 70.000 kilometro egin behar ditu ekoizpenean sortutako emisioak errekuntzako batekin berdintzeko. Hortik gora hasten da garbiagoa izaten, CO₂ari dagokionez. Kalkulu horietan ez dira kontuan hartzen meategietan pozoitutako ur kopuru erraldoiak edo auto elektriko zaharren hondakinen tratamendua, besteak beste. Karbonoa eta klima ez dira ekosistemen arrisku bakarra, inondik ere. Auto elektrikoek karbono aztarna errekuntzakoena baino txikiagoa izanda ere, haien abantaila handiena ez ote den kalteak bistatik aldentzea, Bilbo edo Iruñetik Boroa, Zubieta eta Txilera.

Bestetik, ikerlari askok ohartarazten dute ezinezkoa dela munduko 1.400 milioi autoak elektrikoekin ordezkatzeko. Hiru muga nagusi aipatzen dituzte. Lehenik, ekoizpenean behar diren mineral kritikoak, batez ere litioa, nikela eta kobaltoa. Bigarrenik, erregai fosilak osorik ordezkatzeko, lauzpabost aldiz handitu beharko litzateke elektrizitate sortuntza, eta horrek beste muga batzuekin egiten du talka. Hirugarrenik, kargarako azpiegitura orokortzeak zailtasun logistiko handiak dauzka, eta baliteke munduak horretarako kobre nahikorik ez izatea, bateria etxeko garajeetan betetzeko aukerarik ez dutenentzat, behintzat.

Zailtasun horiek azaldu dezakete, hornikuntza arazoekin, bizitza garestitzearekin eta soldata errealek jaistearekin batera,

azken urteotako matrikulazioen beheranzko joera. Aldiz, gamma altuko ibilgailuak gero eta gehiago saltzen dira, elektrikoak barne. Mugimendu bikoitz horrek, auto gutxiago baina garestiagoak saltzeak, argi islatzen du merkatuak nola kudeatzen duen eskasia. Energia eta materialen krisia serio hartzen ez badugu, arrisku handia dugu baliabide gero eta eskasagoak elite gero eta txikiago baten esku uzteko. Demagun, teknologia elektrikoarekin, gaur egungo ibilgailuen %10 izan dezakegula. Nola banatuko dugu %10 hori? Ordaintzeko ahalmena dutenek monopolizatuko dute motordun mugikortasuna? Ala beharren arabera banatuko dugu, funtsezko gizarte funtzioak lehenetsiz eta ibilgailu publiko eta partekatuak sustatuz? Bigarren bidetik jotzekotan, automobil pribatua bera jarri beharko genuke auzitan, errekontzakoa baino gehiago.

Abiadura eta askatasuna

Abiadura eta askatasuna, horiek dira automobilen promesarik behinenak. Bi promesa horiek zer neurritan betetzen diren frogatzeko, metodo bitxia erabili zuen Ivan Illichek 1974ko *Energy and Equity* lanean. Zein abiaduratan ibiltzeko aukera ematen digute autoek? Kontagailuari begira, 50 eta 120 km/h arteko abiadurak emango lituzkete gidari gehienek. Illich, aldiz, orduko estatubatuarren batez besteko abiadura kalkulatzeko, autoan egindako kilometroak eta autoari emandako denbora totala zenbatzen ahalegindu zen:

Amerikar tipikoak urtean 1.600 ordu baino gehiago ematen dizkio bere automobilari: barruan eserita, martxan edo geldirik, autoa ordaintzeko lanean, edo gasolina, gurpilak, bidesariak, aseguruak, isunak eta errepede federaletarako zein aparkalekuetarako zergak ordaintzeko. Egunean lau ordu ematen dizkio, erabiltzen, hartaz arduratzen edo berarentzat lan egiten. [...] 1.600 ordu horiek 10.000 kilometroko bidea egiteko balio diote, hau da, ordubetea sei kilometro egiteko. Garraio industriarik gabeko herrialdeetan gizakiek egiten duten abiadura bera da. Baina, amerikarrak zirkulazioari denbora sozialaren laurden bat ematen

ten dion bitartean, motorizatu gabeko gizarteetan denbora sozialaren %3-8 bideratzen da horretarako.

Lau hamarkada igaro dira lerro horiek idatzi zirenetik, eta aldeak egongo dira Estatu Batuetatik Euskal Herrira, baina ez dut uste gaurko batez besteko euskaldun motordun baten zifrak hain ezberdinak liratekeenik. Are gehiago jakinda 1.600 ordu horien zatirik handiena autoa ordaintzeko lanean emandako denborak hartzen duela, eta azkenengo urteetan gora eta gora ari direla autoen eta erregaien prezioak. Ordutik, biderkatu egin da munduko ibilgailu kopurua, abiadura eta gizaki gehienok egindako distantzia, baina neurri berean handitu da ibilgailuei emandako denbora. Hortaz, nori egiten dio mesede azelerazioak, gizakion joan-etorriei ala kapitalaren zirkulazioari?

Denborarekin batera, espazio publikoaren zati handi bat kolonizatu dute ibilgailu pribatuek, xx. mende hasieran oinezkoak kaleen erdigunetik kanporatu zituztenetik. Azkenengo urteetan, zorionez, lekua apurka-apurka mugatzen gabilzkien arren, oraindik ere gure hirietako espazio publikoaren bi heren inguru hartzen dute autoek. Oinezkoen guneez, bidegorriek eta garraio publikoari erreserbatutako errailek lekua irabazi dute hirien erdiguneetan, baina oraindik ere bide luzea du deskolonizazio prozesuak. Aldi berean, autoek espazioa irabazten jarraitzen dute hirien kanpoaldeko urbanizazio, saltoki handi, autobide eta aparkalekuetan.

Nolanahi ere, arazoa ez da autoek jandako espazio publikoa bakarrik. Are larriagoa da hiriak, lurraldea eta gizarte bera motordun ibilgailuen neurrira eratu izana. Lurraldea erabilera edo funtzioen arabera bereizteak elkarrengandik urrundu ditu bizitoki, merkataritza gunek, lantoki eta aisialdirako gunek. Era horretan, autoek distantziak sortu dituzte, haiek bakarrik murriztu ditzaketenak. Horrela sortzen da autoari lotzen gaituen sorgin gorpila. Beraz, askatasuna ematen digute, iragarkiek saldu ohi duten bezala, ala distantziak handitzera behartzen gaituzte, denon espazioa eta

denbora xurgatuz? Askatasunez mugitzeko, beharrezkoa da ez mugitzeko askatasuna ere.

Emisio altuko gizartea

Erakunde publikoek garraio pribatuari emandako hauspoa argi islatzen da aurrekontu publikoetan. Greenpeacearen eskariz egindako ikerketan, Europako garraio azpiegitura ezberdinetan 1995etik 2021era egindako inbertsioak alderatu zituen Wuppertal institutuak. Ondorioak argiak dira: 2018ra arte %66 handiagoak izan dira errepide sarean egindako inbertsioak trenbide sarean egindakoak baino. Hortik aurrera erdira jaitsi da aldea, baina oraindik ere errepideek hartzen dute aurrekontuen zatirik handiena. Ondorioz, autobideen luzera 51.494 kilometrotik 82.493 kilometrora igaro da, eta, aldi berean, 13.717 kilometro trenbide eta 2.582 geltoki galdu dira. Prozesu horren adibide asko jar litezke Euskal Herrian ere. Ekonomia eskuliburuek azaldu ohi dutenaren kontra, eskariak eskaintza sortzen duen bezala, autobideek gidariak sortzen dituzte.

Eta ez dirudi autoentzako azpiegituren aroa eten denik, gure erakundeek larrialdi klimatikoa onartu arren. Azken hilabete-ko lagin txiki bat ematearren, A-8 autobidean Kantabriarako bidean hirugarren erraila egiteko asmoa iragarri da, Araba eta Burgos arteko lotunean errail bat gehitzeko akordioa egin da Espainiako Gobernuarekin eta Gernikan 1.000 tokiko aparkalekua iragarri dute. Baina urteko obra faraonikoaren saria Bilboko itsasadar azpiko tunelak irabaz lezake, AHTari azken urteotako hegemonia kenduta: 450 milioi euro, hiru kilometroko tartean zazpi minutu eskas aurrezteko, aldundiak onartu arren inguruko trafikoa %33 handituko duela.

Onartu beharra dago, hala ere, ez dela erraza ibilgailu pribatuan oinarritutako mugikortasun ereduari atzera egitea, gizarte eredu bera aldatu gabe. Metadona programak lagun dezake adikzioa gainditzeko, baina epe luzera bizimodua bera

berrikusi behar izaten da. Esate baterako, goian esandakoa-ren ildotik, lurralde plangintzak dentsitate minimo bateko herriguneak sustatu beharko lituzke, elkarrengana hurbilduta dendak, etxeak, aisia eta lantokiak, posible izan dadin gehienok eguneroko bizitza oinez egitea. Ondoren dator garraio publikoa indartzea, oinez egin ezin daitezkeen bideetarako, azpimarra udalerri barruko eta eskualde barruko eskaintzan jarrita, hor egiten baitugu desplazamenduen %85.

Ekoizpen eta kontsumo sareak ere birpentsatu beharko genituzke, mugikortasunaren erronkari ganoraz heltzekotan. Fokua norbanakoengan jartzeko joera dugun arren, gogora dezagun garraioarekin lotutako emisioen %40 salgaien zirkulazioak dakarrela. Gainera, ibilgailu pribatuan egindako joan-etorrien erdia lanerako egiten dugu, eta jarduerak hurbiltzeak lantokiak hurbilduko lituzke. Jarduera ekonomikoak birlokalizatzek, emisioak txikitzeaz gain, lanpostuak sortzen lagunduko luke, krisi ekologikoak gogorren kolpatuko dituen sektoreen ordez, eta gure gizartea moldagarriagoa bihurtuko luke hornikuntza arazoen aurrean. 2020tik zailtasunak daude mikrotxipak ekartzeko, baina zer gertatuko litzateke elikagaien hornikuntza etengo balitz?

Mugikortasunak deskarbonizazioari eta energia krisiari erantzun diezaion, aldi berean birpentsatu beharko genituzke mugikortasun politikak, lurralde plangintza eta ekonomia. Oro har, hirurak ekarri beharko genituzke eskala lokalago batera, aukera izan dezagun eremu geografiko txikiago batean ondo bizitzeko, hurbilago eta astiroago. Aldaketak, jakina, ezin dira egun batetik bestera egin. Gizarte eraldaketa handia ez ezik, marko kulturala iraultzea eskatzen dute, kontsumo arinean oinarritutako zoriontasuna alboratzea, bizitzako plazer txikiez gozatzen ikastea. Erronka beharrezkoa bezain zaila, zaila bezain beharrezkoa. Ondo bidean, lasaiago bizi gintezke, maite ditugunekin maite duguna egiteko denbora handiagoarekin. Txarreanean, gizartea eraldatzeko behar ditugun material eta energia eskasak xahutuko ditugu, inora bidean abiadura bizian garamatzaten munstroak eraikitzeke. 🌱



Historia

Cira Crespo

Izar suizidak

1962ko abuztuaren 4an, 08:30etik 10:30era bitartean, hor nonbait, barbiturikoz pozoitu ondoren Marilyn Monroe hil izanak ez dauka, hasiera batean eta itxuraz, behintzat, Euskal Herriarekin zerikusi handirik. Baina, badu, noski, zerikusirik, azken batean gizatasunaz eta mundu modernoaz ari baikara. Marilynek ez zekien, pinpilinpauxen hegaldiek bezala, bere heriotzarekin leku askotako jende ezberdinarengan eragingo zuenik, ezta besteren bizitzetan aldaketa landatuko zuenik ere.

Aktoreak izar izendatzeko ohitura, seguru asko, Ingalaterran sortu zen, antzerkigintzaren munduan. Gero, Hollywooden konstelazio propioa sortzen hasi ziren, *Star System* deitua. Han barruan, bere papera jokatzen zuen bakoitzak zalantzan jar ezin zitekeen irudia eskaini behar zuen, eta bere argia ikuslegoari saldu. Izar hitzak famatuaren papera nabarmentzen du, aldi berean gorputz urrun eta iritsezin, distiratsu eta txinpartatsu, eta, hala ere, zentzu batean etxeko eta iluntasunean lasaigarri. Baina lasaigarri guretzat, ez, ordea, *izar* direnentzat. Zalantzarik ez daukat goiko bizitza horiek ez direla errazak.

Marilyn Monroeren heriotzaren inguruan (ere) ez da konspirazio teoriarik falta. Teoria horrek gihar narratiboa izan, nonbait, eta, hari helduta, Joyce Carol Oates idazle amerikar ospetsuak oso eleberri arrakastatsua egin zuen, *Blonde*. Iaz jarri zuten Netflixek liburuaren inguruan egindako filma, eta, berriro ere, hitzetik hortzera erabili zen Marilyn Monroe; lotsatia zela, manipulatzeko erraza, edo azkarra, edo ez hainbeste, arima nahigabetua, tristeia gehienetan, alaia gehienetan, edo ez... Haren oroimena maiztua dago, honezkero.

Horregatik ari naiz deseroso samar berari buruz hizketan. Baina, konturatuko zarete: berez, ez dut Marilyn buruz hitz egingo. Akordatu bakarrik egin nahi nuen.

Terenci Moix

Marilyn hil zenean hogei urte zeuzkan mutil katalan bati buruz hitz egingo dut, Terenci Moixi buruz, alegia. Bartzelonako Raval auzo umilean jaio zen, Ramon Moix izen-abizenek, desegituraturiko sendi batean. Raval auzoa Bartzelonako Ciutat Vellan dago kokatuta, eta nik oso barruan daukat sartuta, paisaia oso ezaguna baita niretzat. Han ez naiz inoiz galduko.

Niretzat galbiderik gabeko paisaia hori Filmin plataforman Moixen bizitzaz egin duten dokumentalean agertzen da. *La fabulación infinita* (Fabulazio infinitua) du izena, eta kritika batzuk jaso ditu, batez ere ez duelako merezi bezala azaltzen literatura katalanean Moixek izandako eragina eta, oro har, idazle gisa izan zuen eragina. Nik aitortu behar dut nostalgia handiz ikusi nuela lehenengo atala, hurbiltasun sentimendu harrigarri batekin. Horrexek ukitu ninduen, lehenengo eta behin; ordura arte, ez nuen ikusten, ez nintzen konturatzen idazle katalan ospetsu hura langile-sendi bateko semea zela, ni askotan joana nintzen Bartzelonako taberna tipiko baten jabeen semea, zoruko azulejuen akatsak ezagutzen ditudan taberna horietako batekoa, alegia. Eta, horregatik, akatsez ondo asko ohartzen nintzelako, sakonki ulertu nuen Moixek bere liburu batean kontatzen zigun igande arratsalde hura:

Berriro gehiago berreskuratuko ez dituzun gauza horien artean, oroimenean gordeko dituzula espero ez arren, gero serioски bizi-raun duen gauza bakarra bezala itzultzen diren uneen artean, nik igande arratsaldeak ditut. Diagonaleko pisu berrian, goizeko zinema saio baten ondoren, edo baita tebeo zaharrak erosi eta Sant Antoniko merkatuan behin eta berriz errepikatzen diren kromoak aldatu ondoren ere, Pelayo kaleko gozotegitik igarotzen ginen, aitarekin, pastela jaso eta familia osoa mahaiaren bueltan jartzen ginen, ondo ezagututako jai grina tranpatiak preso hartuta, lane-

gunetako presaren pozoirik gabe, eta bazkalondoetako denboran sartzen ginen. Igande bazkalosteak, etxeko bakearen baretasun txepelean (etxe baketsu horietako kumeak gara gu, berrogeita hamarreko hamarkadako seme-alabak), baretasun loguretua, neguko eguzkiarekin babestua, hain garbia eta gozoa Bartzelona.

Sakonki ulertu dut zer esan nahi duen Herrialdearen hondakinen arteko igande batek, zer esan nahi duen norbera ez beste zerbait ezberdina izateko grinak, zer esan nahi duen kultura gutxitu eta txikiaren preso izateak, eta imajinatu dezaket ere zer esan nahi duten diktadura faxista baten erdian beste gizon batzuk maitatzearen zailtasunek. Mundu horretan zeukan deserosotasun hura, herri gutxitu eta identitate sexual zapaldu baten partaide izate hori, modu batean edo bestean agertzen da haren lanetan, ezin da ezkutatu.

Adibidez,

Oso urrutitik nator,
gogoratzen ez nuen beste gau batetik,
arrotza atzotik eta betiko
nire herri hondatutako kai lainotuan.

Edo...

Nire herria urdina da
itsasoaren ertzean jaiotzen da
ausartak izan ez diren Titanen lurra.

Hizkuntzari dagokionez, pentsatzen dut, zure ama-hizkuntza hizkuntza gutxitua denean, hori beti izango dela gai bat, nahiz eta ez konturatu. Galdera hori Terenci Moixen lanen gainetik hegalka dabil: zein hizkuntza erabili, nola lortu arrakasta zure hizkuntza txikiegia bada? Argitaratu zuen lehen liburua gaztelaniaz izan zen, *Besaré tu cadáver* eleberria, 1965ean, Ray Sorel ezizenez. Gero, 60ko eta 70eko hamarkadetan zehar, katalanez baino ez zuen argitaratu, arrakasta handiz. Arras ospetsu bihurtu zenean, 80ko hamarkadan, gaztelaniaz hasi zen berriro.

Eta hemen dator Terenci Moixen eta Marilynren arteko lotura. Terencik eleberri oso garrantzitsua idatzi zuen Marilynren

heriotzaren inguruan: *L'any que va morir Marilyn* (Marilyn hil zen urtean). Eta, besteak beste, Moixen hezieraren inguruko zalantzak eta konplexuak ulertzeko ere balio digu. Izan ere, eleberriaren lehen bertsioa gaztelaniaz egin zuen; *El desorden* zuen izena, eta Nadal saria irabazten saiatu zen. Ez zuen lortu, eta editoreak bere bulegora deitu zion esateko haren eleberriak funtsezko arazo bat zeukala, hau da, ez zegoela jakiterik zein hizkuntzatan zegoen idatzia: gaztelania izan nahi zuen katalana zirudien haren prosak. Hartara, zergatik ez zuzenean katalanez idatzi? Onartu zion Terencik oharra, eta halaxe egin zuen, eta literatura katalanarentzat eleberri garrantzitsu bat burutu zuen, katalanez pop literatura edota literatura garaikidea prosa aberats, hanpatu eta jatorrarekin egin zitekeela konturatzeko balio izan ziguna. Eta gero etorriko zirenei bidea ireki zien. Hau da, hain zuzen, Marilynren heriotzari buruz hitz egiten duen zatia:

Jainko zaharrak bezala hilda [...] txikiak ginenean izar bihurtu zena, abandonatu egin gintuen, gure nerabearoa hil berria zenean. Karrera haren, alienazio haren goialdean hasi ginen gu, etorkizuneko gizonak.

Txillardegi

Gehiago kostatzen zait Txillardegi, hau da, Jose Luis Alvarez Enparantza, bizi izan zen giroan jartzea. Nik ezagutzen ez ditudan igandeetako bazkalondoetako elkarriketak izango zituen haren sendiak, nik probatu ez ditudan pasteltxoen inguruan. Bera ere zapaldutako giro gris eta tranpatiak preso hartuta sentituko zen, agian. Handik ateratzeko egin zuen lehenengo gauza euskaraz ikastea izan zen: «Donostia erdaltzale eta erregekoi hartan haurtzarotik sentitu nuen gure hizkuntza berreskuratzeke eta mintzabide bihurtzeko bulkada». Hortik aurrera, zenbatezinak dira berak egoera hari aurre egiteko eman zituen erantzunak, euskaraz guztiak: ipuinak, eleberriak, militantzia gordina, instituzionalagoa

ere bai, saiakera politikoa, gaur egungo euskararen oinarrien lanketa... Hari guztietatik egin zuen tira, eta bideak ireki.

Parte hartu zuen gerra haren alboko kalteek martxan jarraitzen dute. Horregatik, Ikusgela egitasmo kulturean haren pentsamendua eta figura sei minututan kontatzen duen bideoak polemikaxoa piztu zuen duela gutxi. Covite elkartearen arabera, Espainiako gaizto eta onen arteko bereizketarako pentsamendu markoaren zabaltzaile nagusietako bat bera, bideotxoak Txillardegiren figura zuritzen du. Nire uste apalean, aldiz, bideoa oso argigarria da, eta ikustea gomendatzen dizuet. Bestela, eta haren lanetan interes gehiago baldin baduzue, beti aukera onena lehen iturrietara jotzea da; hain justu, Jakinen webgunean Txillardegiren obra osoa dago kontsultagarri.

Baina, galdetuko duzue: oso interesgarria, bai, baina zein harreman dauka Txillardegik Marilyn Monroeren heriotzarekin? Bada, harena dela 'Marilynek bere burua hil du' izeneko artikulua. Izarraren suizidioa hizpide hartuta, garai hartan indartsu zen existentzialismoaren korrante ideologikoaren baitako gogoetak plazaratu zituen.

Artikuluari argi agertzen dira haren pentsamenduaren zertzelada nagusi batzuk, esango nuke. Izarraren parean txiki garela eta ezdeus garela –«Ortzea han dugu, goian, goi-goian, urruti, txit urruti, urrutiegi; eta gure oiñazerik ikaragarrienek eta bizienek esan-nahi guzia galtzen dute galatsien pakearen aitzinean»–, edo marxismo ekonomizistari kritika bat: «Funtsezko problema ez baita ez produzioaren emendatzea edo antolamendua, eta ez horrelakorik fitsik; Marilyn'en heriotzaren kakoa jakitea baizik». Zergatik hil zuen bere burua Marilyn? Hara hor funtsezko problema. Nork erantzungo digu? «Erantzunik gabeko galdera, ba dakit», dio Txillardegik.

Marilynen inguruko hitz horiek *Huntaz eta hartaz* artikulua-saiakera liburuan argitaratu ziren, euskaraz pentsamendu garaikidea garatzeko argitaratu zen lehenengo saiakera liburuetako batean. Horren ildoan, bitxia egin zait deskubritzea 'Eskuindar eta ezkertar', 'Intelektualak eta ekintza-gizonak'

edo ‘Azken heriotza dala-eta’ artikuluen artean, liburua, hain zuzen, poema honekin hasten dela:

Udazkenean batez ere,
igande-arratsaldeetako
tristura ixillak
hunkitzen dituen guziei.


* * *

Tximeletaren hegalarren mugimenduak aurretik jakin ezin diren gertaerak ekar ditzakeen era berean, ezin zen aurreikusi Marilyn Monroeren heriotzak Bartzelonako kaleetan hogeituro urteko mutil bati literatura katalana aldatuko zuen eleberri bat eragingo zionik; ezta, beste leku batean, Frantzian erbesteratuta zegoen euskaldun bati, existenzialismoa eta astronomia irakurketak oinarri hartuta, euskarazko pentsamendu liburu garrantzitsu bat osatzen lagunduko zionik ere.

Eta, bitartean, jakin dezagun Katalunian, edo Euskal Herrian, edo Estatu Batuetan, igande arratsalde batzuk zein zailak eta tristeak diren, arren.

O, arren,
hilda egon nahi nuke,
batere ez existitu,
hemendik kanpo, nonahi.
Baina nola egingo nuke. Badira zubiak, Brooklyngo zubia.
Baina izugarri gustatzen zait zubi hori (handik dena da ederra,
eta hain garbi dago airea) oinez ibiliz gero,
lasaia dirudi,
nahiz eta beheko partean
kotxe asko, erotuta bezala, ibili.
Beraz, beste zubiren bat izan beharko da,
itsusia eta bistarik gabekoa –zubi guztiak gustatzen zaizkidala
kontuan izanda–, zerbait badute,
eta, gainera, ez dut inoiz zubi itsusirik ikusi.

Marilyn Monroe. 🍷



 **euskadi
irratia**
gertu

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- ☐ Euskal Herria **60 €**
- ☐ Europa **75 €**
- ☐ Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- ☐ Paperean bakarrik
- ☐ Digitalean bakarrik
- ☐ Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- ☐ Euskal Herria **14 €**
- ☐ Europa **17,50 €**
- ☐ Mundua **20 €**

DIGITALA

- ☐ **14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- ☐ Jakinkide bazara **Doan**
- ☐ Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara ☐ **10 €**
- Jakinkide ez bazara ☐ **12 €**

DIGITALA

- ☐ **4 €**
- ☐ **7 €**



Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia | | | | | | | | | | | | | | | |


Kontuaren jabea



Jakin *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus





Jakin • eus
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

